

## Kultura

Joseba B. Lenoir-ek eta Felix Buff-ek irekiko dute  
Arriolako 25. Jazz Blues Jaialdia Elorrion > 13



## Elkarbizitzarako borondatea

Otxandioko zinegotzi ohiek eta hautetsiek Andikonako Foroan dihardute elkarbizitzan eta bakegintzan urratsak emateko. Egindako bidea herritarrei ezagutarazi guran, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. > 10

**Nora joanik gabe geratu diren familiei bizilekua aurkitzen lagundu die Zornotzako Udalak > 2**

Astepeko etxebizitza bloke bat egoera txarrean dago. Udalak eskatutako azterketa batek termitak daudela bistaratu du, eta eraikina "kolapsatzeko arriskuan" dago. Eraikinagaz zer egin erabaki arte, bizilagunek beste nonbait hartu beharko dute ostatu. Familia askok euren kabuz aurkitu dute nora joan, baina baliabide gutxien dutenekin udaleko Gizarte Ekintza Sailak bitartekari lana egin du, Jaurlearitzagaz batera. Bizilagun guztiek dute behin-behineko bizilekua.



**hitz**  
liburudenda

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

**HILDAGANTZAK**  
50  
Petri Zubizarreta (2014)

**ONE ETA GAZTEENTZAT OIBERTAN LUTIRIENA**  
Harritze Cano & Jokim Mitxelena (2014)

**MUSIKA LOU BEELD, MILA BEKOR**  
Askorrotz artean (2014)

**DURANGALDEAN TXURI**

**GARBIKETA OROKORRAK**  
**GARBIKETA BEREZIAK**  
**ETXEKO LAGUNTZAK**  
**PERTSONA NAGUSIENTZAT**  
**EDO MENDEKOENTZAT**

- Etxeko garbiketala.
- Frosketak.
- Pertsonen zainketa.
- Beharrezkoa izan daitekeen beste edozein zerbitzu
- Oso prezio egokietan.

Tel.: 688 687 461 · txurizerbitzuak@gmail.com

### Durango > 4

Erleak babesteko, Asiako liztorraren inbasioari aurre egin guran dabilta Durangon

### Durango > 6

Merkatu plazan baseritarren postu finkoa ipiniko dute

### Berriz > 2

Aurtengo tximistatik indartsuena jausi da Andikoa auzoan

### Iurreta > 8

Arriandi pastelgintzako bost kaleratzeren kontrako protestak



## Herririk herri

**Elkartasun jaialdia, bihar, berriztarren musikagaz eta poesiagaz**

**BERRIZ** Amaia Ugalde  
Bihar, 20:00etatik aurrera, musika eta poesia jaialdi berezia eskainiko dute hainbat berriztarrek Kultur Etxean. Sarrera kilo bat janarigaz ordainduko du publikoak, eta bertan batutakoa Berrizko familiei zuzendutako elikagai bankurako izango da.

Film labur batez hasiko dute jaialdia. Gero, olerkiak errezitatuko dituzte Oihane Unzalu eta Rosi Pretel berriztarrek. Poesiaren ostean, musika: Iokin Elortza, Etsipen musika taldea eta Rory Kilroy igoko dira Kultur Etxeko oholtzara.

Elkartek eta norbanakoek osatzen duten Gizarte Ongizateko Udal Kontseiluak antolatuta du jaialdia. Janari banaketa hilero egiten dute, Caritas eta Bizkaiko Elikagai Bankuagaz.

**Aurtengo tximistarik indartsuena jausi da Andikoan**

**BERRIZ** A.U.  
Goizaldeko 04:45ean jausi zen oinaztua martitzenetik eguaztenterako gauean, Berrizko Andikoa auzoan. Euskalmet euskal meteorologia agentziak azaldu duenez, -271,8 kA izan ditu, eta aurtan neurtu duten tximistarik handiena izan da. Martitzen arratsaldean hasi zen ekaitza indartsua izan zen. Euskalmeteko Onintze Salazar metereologoa azaldu duenez, Bizkaian 682 tximista kontatu zituzten, eta EAEn 1.579. Andikoan jausi zen gaueko tximistarik indartsuena, eta, era berean, aurtan neurtu duten handiena. Karga negatiboko 271,8 kA izan zituen, eta ez zuen kalte materialik sortu.



Astepen egoera txarrean dauden eraikinak.



Astepeko bizilagunak joan zen barikuko udalbatzarrean.

## Bizileku barik zeuden Astepeko familiei ostatua aurkitu die udalak

Gizarte Ekintza Sailaren bidez behin-behineko ostatuak aurkitu dituzte

**ZORNOTZA** Joseba Derteano  
Astepen hamaika etxebizitza egoera txarrean daude termiten ondorioz: bederatzita etxebizitza bloke bat eta ondoan dauden etxe zuri txiki bi. Udalak agindutako azterketa batek erakutsi duenez, termiten ondorioz eraikina "kolapsatzeko arriskuan dago", David Latxaga alkateak jakinarazi zuenez.

Horregatik, udalak etxebizitzetan bizi direnei bertatik irteteko agindu die. Dagoeneko bizilagun guztiek aurkitu dute behin-behineko ostatua, baina oraindik kontratuak sinatu ba-

rik daude. Bizilagun gehienek euren kabuz aurkitu dute, baina famili gutxi batzuek, baliabide ekonomiko txikiak dutenek, ezin izan dute beste etxebizitza aurkitu, eta joan zen barikuko udalbatzarrerera joan ziren egoeraren berri emateko. Etxebizitza pribatuak izan arren, ordurako Gizarte Ekintza Saila bitartekari lana egiten zebilen Eusko Jaurlaritzagaz, eta aste honetan aurkitu diete behin-behineko ostatua Bizigune eta Alokabide programen bidez.

Joan zen barikua zen Astepeko eraikinetatik irteteko azken

eguna; udalak "malgutasunez" jokatu zuela iragarri zuen.

Familia bati ama eta semea Gernikan eman diote ostatua, eta gaur irtengo dira Astepeetik. Familiako kidea den Carlos Mendesen esanetan, 12 urteko anaia gazteari ikastetxea bilatzea izango dute hurrengo zeregina, egunero Gernikatik Zornotzara etorri beharrik izan ez dezan. Aurora dos Anjosek bere lehengusina Marisa eta bere familia ordezkatzeko ditu. Dos Anjosek atzo eguerdian adierazi zuenez, "bizileku bat aurkitu dietela esan digute, baina ba-

rikuan [gaur] jakingo dugu non dagoen; Durango, Iurreta, Galdakao edo Gernikan izango da". Dos Anjos berak adierazi duenez, Astepen bizi eta nora joanik ez zuen Julieta Batistari Durangon emango diote ostatu: "Familia guztiek dute behin-behineko ostatuta, eta hori pozteko albiste da", dio Anjosek.

**Orain arteko bidea**

Astepeko bizilagun bat eraikinean obra txiki batzuk egiten zebilela sabai zati bat erori, udalari jakinarazi, eta, udaltzainak bertaratu zirenean, eraikinean gabeziak ikusi zituzten. Abuztuaren 1a zen. Eraikin pribatuak izanagatik, udalak berak hartu zuen eraikinaren egoeraren azterketa egiteko ardura. Azterketa horrek eraikineko termiten arazoa mahaigainaratu zuen.

## Elikadura ekologikoaren kontseilua Jauregibarrian

**ZORNOTZA** J.D.  
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEK) Zornotzako Jauregibarria baserriko lehen solairuan du egoitza. Gunea atontzen amaitu, eta hasi dute euren jardueraren.

ENEK Eusko Jaurlaritzatik sortu zen, eta erakunde pu-

blikoa da. Ustiapen ekologikoa sustatzea eta produktuek etiketa ekologikoa jaso dezaten beharrezko arau eta baldintzak betetzen dituzten kontrolatzea dira bere zereginetako batzuk.

Udalagaz sinatutako akordioaren arabera, hainbat ekintza Zornotzan egingo ditu kontseiluak.



Jauregibarriako lehen solairuan lantokia dute, eta bigarrenean batzar gela.

### Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa:  
946 232 523  
Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2014ko azaroaren 7a,  
12. urtea - 565. alea

**Zuzendaria:**

Jone Guenetxea Arrinda.

**Administrazio burua:**

Itziar Belar Zubizarreta.

**Administrazioa:**

Miren Abasolo Txabarri.

**Publizitatea:**

Goiretti Alonso  
Armendia, Amaia Huarte Basabe,  
Itxaso Altuna Marina.

**Erredakzioa:**

Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso  
Esteban Urriaga, Joseba Derteano  
Bilbao, Markel Onaindia Txabarri  
eta Amaia Ugalde Begoña.

**Maketazioa:**

Eider Alberdi Bengoa.

**Zuzentzailea:**

Jon Ander Urkiaga Egidazu.



## Iheskide taldearen kontzertua Luis Urrengoetxea kaleko jaietan

**ZORNOTZA** J. Derteano

Luis Urrengoetxea kalean ekitaldiz betetako jaiak ospatuko dituzte gaur hasi eta domekara arte. Gaur, 19:00etan, txupinazoa botata hasiko dituzte jaiak. 20:00etan Zaparrada batukada taldea ibiliko da jai giroa ipintzen, eta jaietako lehen egunari Inun bakarlariaren musikak emango dio amaiera, 22:00etan.

Bihar, 12:30etik aurrera, puzgarriak egongo dira gazte txoenen gozagarri, eta eguerdian trikitilariak ibiliko dira kaleak musikaz betetzen. Goizean su txikita ibili ostean, sukalki txapelketako (gisatua) parte-hartzaileek 14:30ean aurkeztu beharko dute euren platera; jarraian sari banaketa egingo dute. Arratsaldean, Taberna Ibiltaria taldeko ki-deak kantari ibiliko dira tabernarik taberna. 21:00etatik aurrera musika kontzertuak izango dira protagonista Larregi eta Iheskide taldeekin. Domekan, pintxo-poteoa egongo da koralen laguntzagaz, 13:00etatik 15:00etara.

## Egurra etxeetan jasotzeko aukera egongo da aurrerantzean

**OTXANDIO** J.D.

Herriko baso publikoetan herritarrek aprobetxatu dezaketen egurra sortzen da urtero. Orain arte ez zegoen ordenantza berezirik prozedura hori zehazteko. Azken udalbatzarrean, sutarako sortak eta egurraren aprobetxamendua zehazten duen ordenantzari hasierako onarpena eman zioten aho batez. Orain, emendakinak jartzeko epea hasiko da hilebetez. Ondoren, behin betiko onarpena emango diote udalbatzarrean.

Orain arte, basozaintzatik sortutako egur sortak tokian bertan markatu edo lurrera botata, eta herritarrek, udaletxean eskaera egin ostean, bertara joaten ziren materiala jasotzera. Baina Santi Uribe alkatearen esanetan, "herritar batzuek gustura hartuko lukete egurra etxean bertan". Beraz, ordenantza berrian aukera hori jaso dute: gura duenak aukera izango du egurra, apeatan ebakita, etxean jasotzeko. Kasu horietan, lehen egur sortagatik ordaintzen zenari gehigarri bat jarriko zaio.

## Euskal Herritik Kataluniara begira

Domekako galdeketaz duten iritzia eman dute Durangaldean bizi diren hiru katalanek

**DURANGALDEA** J. Guenetxea Auzitegi Konstituzionalaren debekuaren aurrean, Generalitateak azaroaren 9ko galdeketari eutsiko diola erantzun du.

Katalunian domekan egingo duten herri galdeketa arreta bereziagaz jarraitzen dabilta Elisabet Puiggròs, Aurora Julià eta Eloi Salas. Hirurak Durangaldean bizi dira, baina katalanak dira.

Juliak homeopatia kontsultategia du Abadiñon. Prozesua proiektu ilusionagarria dela dio. Hala ere, prozesu honek oztopo asko izan dituela aitortu du: "Pare bat gizaldi atzeragoko mentalitatea duen gobernu bat dugu". Espainiako Gobernuak ez dela "oso demokratikoa" gaineratu du, baina horrek ez duela harritzen. Hala ere, uste du gobernuak ez duela etorkizunera begiratzen: "Hau arazo politiko bat da, eta irtenbide politikoa behar du". Demokrazia parte-hartzailea dela helburua azpimarartu du: "Katalanok gure

etorkizunari buruzko erabakiak hartu gura ditugu".

Eloi Salas Atxondon bizi da, eta postaria da. Herri galdeketa malenkonia handiz bizi duela aitortu du: "Bertatik bertara bizitzea gustatuko litzaidake". Kataluniako eragileek eta herritarrek gizarte zibila mobilizatu dutela azpimarratu du: "Herrietan egindako galdeketekin hasi ziren, banan-banan. Prozesu honekin gertatu den gauzarik harrigarriena da kontzientzia kolektibo handirik ez zuen jendeak aldaketa egin duela eta mobilizatu egin dela".

Estatuak eta bere inguruko estamentuak "dena lotuta" izateko sortuta daudela dio, baina gauzak "mobilizazioagaz eta herritarren kontzientzia argiagaz" aldatzen direla. "Generalitateak horregatik egin du egin duen guztia. Lotuta dagoelako". Asteburuan Kataluniara joango da. Ezin du botoa eman, baina garrantzitsuena kalean egotea dela dio.



Puiggròs, Salas eta Julià kataluniarrak Durangaldean bizi dira.

Elisabet Puiggròs irakaslea da Otxandioko eskolan. Bera ere Kataluniara joango da domekan, "egun historiko" hori familian bizitzera. Bere senitar-tekoek boluntario gisa egin dute lan prozesu honetan. Galdeketa "urduritasunez eta itxaropenez" bizi du Puiggròsek. "Berez, gure herriaren bidea guk egin behar dugu, eta ez diogu inori baimenik eskatu behar galdeketa hori egiteko. Herriaren borondatea bada, galdeketa aurrera joan behar du, erakunde eta talde politikoen iritzia-

ren gainetik". Gaineratu duenez, herriak Artur Mas aurrera jarraitzea behartu du. Nabarmendu du prozesu honetan gizarte zibila dela benetan indarra eta botorea duena. "Indar horren bitartez alderdiak mugitu dira. Jendea ez dago atzera botatzeko prest". Kataluniako gizarte guztiz aldatuta ikusten du. "Prozesu hau iraultza soziala ere bada. Jendeak erabakitzeo eskubidea eskatzen du, baina baita gizarte eredu berri bat ere. Joan naizen bakoitzean sumatut hori kalean eta familian".

## Inplanteen gaineko protesien berehalako karga



### > PUBLIRREPORTAJEA

Hortz-protesi bat jasoko duten hortz-inplante tratamenduetan batez beste hiru hilabete itxaron behar izaten da protesi hori implanteen gainean torlojatu ahal izateko. Denbora horretan

gaixoak aldi baterako protesi bat daruma ahosabaian edo hortzoietan jarrita, eta inplanteak libre geratzen dira.

Orain arte inplante horiek hiru hilabete behar izaten zu-

ten hezurrera egiteko eta bertan fijo geratzeko.

Gaur egun, gaixo batzuen gan aldi baterako protesi bat ipini daiteke inplanteak jarri eta hurrengo egunean, hiru hilabete itxaron beharrik gabe; baina, horretarako, honako ezaugarri hauek behar dira:

1. Gaixoak ez du bruxismo-rik izan behar, hau da, lo dagoenean ez ditu hortzak estutu behar.

2. Gaixoak ezin du muskulatura indartsurik eduki, hau da, muskulu maseteroek normalak izan behar dute.

3. Gaixoak ez du hezur ha-

rroegia izan behar, baina gogorra bai, inplanteak hezurrei ondo itsatsita geratu daitezkeen lehen egunean (egonkortasun primarioa).

4. Zirujauak inplanteak ahalik eta bertikalen jarri ditzake oinarri oklusalarekiko.

5. Hurrengo egunean inplanteen gainean jartzen den aldi baterako protesiak tarteko pieza batzuk eraman behar ditu mastekatzearen indarra leuntzeko.

6. Bost hilabeteren buruan behin betiko protesia jarri daiteke inplante horien gainean. Horrela, bere haginak eraman-go balitu bezala sentzitzen da gaixoa hurrengo egunean.

Bost hilabete horietan jaki bigunak jan beharko ditu gaixoak, eta deskarga-ferula erdi gidatu bat erabili beharko du guzuzen.

 **Ekoden**  
hortz klinika

Tratamendu hau  
**EKODEN** hortz klinikan  
garatu da  
Arkotxa Kalea, 4  
DURANGO  
Tel.: 946 217 822



## Erleak babesteko, Asiako liztorraren inbasioa gelditu guran dabilta

Eguaztenean, Durangoko Tabirabide kalean, liztor habia bi suntsitu zituzten



Tabirabiden, bizirautea lortu zuen liztorretako bat, habiaren arrasto artean.

**DURANGALDEA** M. Onaindia Durangaldea ere inbaditu du Asiako liztorrak. Frantziatik sartu zen Europara duela lau bat urte, eta astiro-astiro hedatzen joan da, Euskal Herrira heldu arte. Iurretako suhiltzaileek hainbat irteera egin dituzte aurten, eta iazko liztor kopurua bikoitza ikusi dutela diote. Erleak dira Asiako liztorraren elikagai nagusia, eta, hemengo espeziea arriskuan ipini ahal

duelakoan, inbasioa gelditzeko ahaleginetan dabilta. Eguaztenean, Durangoko Tabirabide kaletik –Mañaria errekaaren alboan– habia bi kendu zituzten Aldundiko Base Gorrikoek.

Azken asteetan Durangaldeko hainbat lekutan ibili dira suhiltzaileak: Iurretan, Berri-zen eta Zaldibarren, adibidez. Atxondon, igerilekuen parean kendu zuten habia bat. Zabor poltsa batean sartzen dute ha-

bia, eta ostean desegin egiten dute. Tabirabideko habiak arbolan altuetan zeuden, eta suhiltzaileek ezin izan zituzten kendu. Horregatik, Base Gorrikoek suntsitu zituzten eskopetekin. Liztor habia bat ikusiz gero, Base Gorrikoei edo suhiltzaileei deitzeko eskatu dute.

Base Gorrikoen ekintzaren ostean ere bizirautea lortu zuen liztorrik bazegoen Tabirabiden. Bi eta hiru zentimetro artekoak izan ohi dira, eta gorputz beltza dute, atzealde horiagaz. Jateko, erlauntzetara joaten dira, eta erleak hegaz hartzen dituzte: asko euren habietara eroaten dituzte, liztor jaiotze berriei jaten emateko. Udazkenean hartzen dute tamaina handiena. Pertsonentzat ez ei dira oso arriskutsuak; ziztada asko jaso behar dira kalte egiteko. Baina, suhiltzaileek diotenez, kontuz ibili behar da, pozoia jaurtitzen dutelako.

Neguan hil egingo dira gehienak, baina liztor erreginak ezkutatu egingo dira, datorren urtean habia berriak sortzeko.

**DURANGO** M.O.

Durango hegoaldeko saihebidaren bigarren fasea amaitu dute, eta 2015ean beste zati bati ekingo diote. Saihebidetarako Durango barneko trafikoa arintzea da udalaren helburua. Elorriotik eta Abadiñotik datozenek ez dute herria gurutzatu behar Alde Zaharrerantz edo Urkiolarantz joateko; Montorretako biribilgunetik –Ona albotik– zuzenean agertuko dira Tabiran. Durangotik irteteko ere balioko du, baita Urkiolako bidetik datozenek Abadiñorantz egiteko ere.

Eguzkitzarantz ematen duen biribilgunea eraiki dute, adibidez, bigarren fasean. Hurrengo tartea 2015eko martxorako hasita egotea aurreikusi dute, eta beste muturretik hasiko dira obretan, Montorretatik.

## Neska-laguna jipoitzea egotzita atxilotu dute

Zapatuan, Sasikoa kalean izan zen eraso sexista

**DURANGO** M.O.

24 urteko gizon bat atxilotu zuten ertzainek zapatu gauean, Durangon, bikotekidea jipoitzea egotzita. Sasikoa kalean izan zen eraso, goizaldeko 03:00 aldera. Ertzainek atxilotu egin zuten, eta gero epailearen-gana eroan zuten.

Udaleko Berdintasun Kontseiluak eta Berdintasun Batzordeak eraso gaitzesteko oharra kaleratu zuten. Eraso sufritu duen emakumea babestu dute, eta mugimendu feministatik sortu ahal diren protes-

tetan parte hartzera animatu dituzte herritarrak.

Eraso horretaz gainera, emakumeen kontra egindako edozein indarkeria mota arbuiatu dute Berdintasun Kontseiluak eta Berdintasun Batzordeak.

Berdintasun Kontseiluak eta Berdintasun Batzordeak ohar bidez gatzetsi dute eraso

## Plateruena, etorkizunari alegrantziaz begiratzen

Hamargarren urtemuga ospatu du Plateruenak



Plateruenerako urtemugaren ospakizuneko une bat. Ainara Petite Madariaga.

**DURANGO** M.O.

Durangoko kaleetan hasi eta antzokiraino, jai giroa zabaldu zuten joan zen barikuan Plateruenerakoek. Izan ere, hamargarren urtemuga ospatu zuten dozenaka lagunek. Andra Maritik kalejira egin zuten batukadagaz eta txistulariekin, eta antzokiaren kanpoaldean Kantulagun ekimenekoekin jarraitu zuen jaiak. Argi eta irudi ikuskizuna ere eskaini zuten.

Barruan bertsolariak, dantzariak eta musikariak egon ziren.

Beñat Gaztelurrutia zuzendariak gogoratu zuen Plateruena diru bilketa eta borondatezko lan kanpainan murgilduta dabilela, hasierako inbertsioko 1,5 milioi euroetatik 250.000 banketxeetara itzultzeko geratzen direlako. Laguntza eskertu, eta, *plateruen* izaeragaz bat, etorkizunari alegrantziaz begiratzeko deia egin zuten antolatzaileek.

## Saihesbidetako hurrengo fasea 2015ean martxan

Hegoaldeko saihebidaren bigarren zatia amaitu da



Eskumako biribilgune berriak Montorretako poligonora doa saihebidetara.

**MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN**  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com





**Euskal Babarrunak**  
Alubias del País Vasco

## Euskal babarrunak

Babarruna tradizio handiko produktua da Euskal Herrian, eta aspalditik hazten da gure baserrian. Eusko Label ziurtagiria duten euskal babarrunak kalitate goreneko babarrunak dira, hautatutako mota askotarikoak, eta dastatzaile profesionalak "oso onak" edo "apartak" direla esan izan dute. Betiko eran ekoizten dira, baserri ondoko baratze txikietan, ezaugarri moduan esan dezakegu inurumena erabat errespetzatzen duten teknikak erabilia ekoizten dela. Euskal babarrunen artean honako hauek dira ezagunenak:

- Tolosako babarruna.
- Arabako babarrun pintoa.

### Horrela identifikatzen da

Eusko Label ziurtagiria duten euskal babarrunak alean edo prestatuta merkaturatu daitezke, baina inoiz ez ontziratu gabe. HAZIk aurrez onartutako pisu desberdineko bilgarrietan saltzen dira, eta guztiek zenbakidun kontrol-etiketa dute, Eusko Label ezaugarriarekin.



**Ibarrako Piparrak**  
Guindillas de Ibarra

## Ibarrako piperrak

Azal fina, ia minik ez duen mami samurra, kolore hori-berdexka eta zapore suabea dira Eusko Label ziurtagiria duen Ibarrako piperra nahastu ezin egiten duten ezaugarriak.

Bertako barietate bat da, eta gehiena Gipuzkoan ekoizti eta ontziratzen da, produktuaren aukeraketa oso zorrotza egin ondoren.

Azidotasan gutxi eta gatz gutxi duen ardo zuria- ren ozpinarekin ontziratzen den elikagai paregabe hau gero eta izen handiagoa hartzen ari da merka-

tuan; batetik, hainbat plateren osagarri gisa eta, bestetik, aperitibo ugariaren oinarri gisa.

### Horrela identifikatzen da

Eusko Label ziurtagiria duen Ibarrako piperrak hainbat neurritako kristalezko ontzietan aurkituko dituzu: etxean jateko edo jatetxeetarako. Ontzi horiek guztiek kontrol-etiketa zenbatua dute Eusko Labelen ezaugarriarekin.

## Egin zaitez Anbotoren lagun!

ANBOTO astekariaren aldeko konpromisoa adierazten dute ehunka irakurlek urtero *Anbotoren lagun* eginda. Astekaria, barikuetan, Durangaldeko postontzietan doan banatzen den arren, badago babes ekonomikoa emateko aukera ere, urtean 20 euro ordainduta. ANBOTO 2002an sortu zen, Durangaldeko euskara elkartearen ekimenez. Doan banatuko zela jakitun, bazeuden babes ekonomikoa emateko prest agertu ziren hainbat euskaltzale, eta *Anbotoren lagun* figura sortu zuten. Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko diru iturri garrantzitsua da ANBOTOrentzat. Lagun

-talde horri eskerrak emateko sasoia dela iritzita, kanpaina berria abiatu dugu. Lehendik lagun direnek zuzenean Eusko Label produktuen otzara baten zozketan parte hartuko dute. Gainerakoek, *Anbotoren lagun* egiteko aukera dute. Orrialde honen behealdean dagoen kupioia bete, eta Bixente Kapanagako 9ra (Iurreta) bidali, [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) helbidera idatzi, edo 946 816 558 telefono zenbakira deitzezko aukera duzu; ANBOTOrri babesa ematez batera, otzararen zozketan parte hartuko duzu.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!  
**Lagun egiteko 3 aukera dituzu**

@ **anboto@anboto.org**

☎ **946 816 558**

✉ Izen-deiturak \_\_\_\_\_  
Helbidea \_\_\_\_\_  
Herria \_\_\_\_\_ Posta kodea \_\_\_\_\_  
Telefonoa \_\_\_\_\_  
Anboto komunikabideak - DHK  
Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA



**Anbotoren lagunen artean Eusko Label produktuen otzarak zozkatuko ditugu**

**anboto**  
*Lagunak*



**anboto**



# Merkatu plazan baserriarren postu finkoa ipiniko dute

Gabonetatik aurrera, egunero salduko dituzte baserriko produktuak



Ezkerretik eskumara, Oarbeaskoa, Zarrabeitia eta Guerrero; euren aurrean, postuaren maketa.

**DURANGO** Markel Onaindia Baserriarrek euren produktuak egunero saltzeko aukera edukiko dute Gabonetatik aurrera. Dendak Bai elkarteak, Amankomunazgoak emandako 15.000 eurogaz, postu finko bat ipiniko du merkatu plazaren aurrean. Horrela, Durangaldeko baserrietako produktuak

salerosketo gune izango da. Baserriarrek han utziko dituzte ekoizpenak, bakoitza bere prezioagaz. Gero, Dendak Baik kontratatutako pertsona batek salduko ditu produktuok. Irizpide sozialak hartuko dituzte aintzat kontrataziorako, eta Zornotzako Lanbide Heziketako praktikari baten laguntza edukiko du.

Dendak Baik kontratatutako pertsona batek salduko ditu produktuak postuan

Dendak Bai elkarteak Merkatu plaza gestionatzeko udal mahaian dago, eta zapatuetako merkatuari bultzada emateko erabaki dute ekimena martxan ipintzea. “Zergatik ez egunero?”. Hori da Guillermo Oarbeaskoa merkatarien ordezkariak plazaratu duen galdera. As-teheneetik barikura, ordutegi komertzialean zabalduko dute postua. Merkatuan egoten diren 45 baserriarrek zein salmentarako lizentzia daukan beste edozeinek saldu ahalko dituzte produktuak. Oarbeaskoaren berbetan, postua baserri itxurakoa izango da, egurrez egina, eta ezpata dantzarien banderen koloreak edukiko ditu.

Oarbeaskoaren esanetan, eskualdeko produkzioa ezagutaraztea da beste helburu bat. Gainera, merkatariak baserriarrek produktuak erosteko ohitura hartzeko lagungarri izan ahal dela uste du Dendak Bai elkarteak Araceli Guerrero teknikariak.

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidenteak azaldu du Dendak Bai elkarteagaz hirugarren urtez egin dutela laguntza hitzarmena, eta aurten Merkatuko ekimena babestu dutela. Postua erosteko inbertsioa egin dute. “Lehen sektorearen aldeko apustua da”, esan du ekimenari erreferentzia egin da. Akordioak hamar urterako erabilera baimena ematen dio Merkatu plazako postu finkoari.

## Behin-behinean onartu dute Hiri Antolamendurako Plan Orokorra

**IZURTZA** Joseba Derteano Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) behin-behinean onartu zuten martitzeneko udalbatzarrean gobernu taldearen aldeko botoekin. EAJk aurka bozkatu zuen.

Herritarren artean galdeketan egin ostean, iaz ere onartu zuten plana behin-behinean, baina Jaurlaritzako eta Aldundiko organoek aldaketa estrukturalak ezarri zizkieten: saihebidetuta planetatik atera, eta eraiki daitezkeen etxebizitzak kopurua gutxitu behar izan dute, 90 bizilekuetatik 45era.

EAJren ustez, gobernu taldeak “bazekien zein zen errealitatea” aurreko plana onartu zenean; ondoren, herritarrei berriro zuzenean informatu ez izana salatu zuen.

Aurreko legegintzaldiko gobernu taldeko Iker Ballarinen ustez, saihebidetaren gainean “borondate politikoa egon baltz, onartuko zen; badakigu Aldundian nortzuek agintzen duten”. Luis Ballarin (Bildu) alkatearen esanetan, “alferrik da berriro herri batzarra deitzea, erabakiak goiko organoetatik inposatuta datozenean”.

## Konposta atera, eta ortuetara bisita egingo dute azaroaren 15ean

**MALLABIA** Jone Guenetxea Mallabiko lau auzokonpost guneak martxan jarri zituztenetik zortzi hilabete pasatu eta gero, lehenengoz aterako dute konposta, eta herritarren artean banatuko dute. Azaroaren 15erako jarri dute hitzordua, eguerdiko 12:00etan. Konposta atera eta banatu ondoren, Mallabiko ortu ekologikoetara bisita egiteko eta zelan funtzionatzen duten azaltzeko aprobeztatuko dutela adierazi du Mila Mondragon alkateak.

Alkateak gaineratu duenez, etxeko hondakinaren %40 materia organikoa da. Auzoetan eta herrigunean auzokonposta egin, eta konposta herrian bertan kudeatzea eta berrera-biltzea da egitasmoaren helburua. “Betidanik modu naturalean egin dena egiteko aukera eskaintzen ari gara herritarrentzat. Ingurumenari kalte egin beharrean, ongarria itzultzen zaie”, azaldu du Mondragonek.

## Ikasle poloniarren bisita jaso dute Txintxirrin

Elorriarrak maiatzean joango dira Poloniara

**ELORRIO** M.O.

Txintxirri ikastolakoek ikasle poloniarren bisita jaso dute, eta gazteen artean harreman berriak sortu dira horri esker. Txintxirrik eta Inowroclaw herriko ikastetxeak trukea lantzeko dinamika martxan dute, eta elorriarrak maiatzean joango dira hara. Txintxirrikoek bisitaren balorazio positiboa egin

dute. Azaldu dute gazteek ingelesa praktikatzeko eta nortasuna garatzea zela helburua, eta, gainera, Euskal Herriko kultura zabaltzeko asmoa bete dutela. Harremanak eraiki direla esan dute, eta agurra hunkigarria izen zela ere bai.

Poloniarrek Elorrio ezagutu dute, eta Urdaibai eta Bilbo ere bisitatu dituzte.



Ikasle poloniarrek, azken egunean ateratako talde argazkian.

## Goi-tentsioko kable bat hautsi zen Astolako industriagunean

**ABADIÑO** J.G.

Metal Performers enpresaren fatxadara goi-tentsioko kable bat jauzi zen. Martitzen eguerdian jazo zen gertaera, Astola auzoko industriagunean. Ertzaintzak jakinarazi duenez, kableak enpresaren aurrealdeko horman txinpartak eragin zituen, eta, sua zelakoan, Ertzaintzari abisu eman zioten herritarrek.

Iberdrolako teknikariak eta suhiltzaileak bertaratu ziren goi-tentsioko kablea konpontzera

Metal Performers enpresan korrante elektrikoa moztu zuten, eta Iberdrolako teknikariak eta suhiltzaileak bertaratu ziren kablea konpontzera. Hasieran sutea izan zitekeela zirudien arren, txinpartek ez zuten surik sortu.

## Bigarren eskuko azokan izena emateko epea hasi da

**MAÑARIA** M.O.

Abenduaren 14an izango da aurtengo bigarren eskuko azoka. Profesionalak ez diren pertsonak ondutako objektuak onartuko dituzte antolatzaileek. Adibidez, etxean egindako bitxiak, jantziak eta jostailuak. Zerrenda horretatik kanpo geratuko dira, bestalde, kremak eta elikagaiekin egindako manufakturak. Azokan parte hartu gura dutenek azaroaren 28ra arteko epea dute izena emateko.

Udaletxera edo liburutegira jo behar dute interesdunek, eta, izena emateagaz batera, zer objektu salduko duten zehaztu beharko dute. Bakoitzak euro bi ordaindu beharko ditu postua jartzeko. Antolatzaileen arabera, partaide bakoitzeko mahai bat ipiniko du udalak.

Informazio gehiago gura duenak udaletxera joan daitezke, edo bertako 946 818 998 telefono zenbakira deitu ahal du.





# Inbasioa hastear da.

## FORD TOURNEO COURIER BERRIA

### ➤ 5entzat lekua

Milaka Courier errepideak, bideak, herriak eta hiriak inbaditzeko zorian daude. Konkista gertu dago 8.990 eurogatik. Behar dituzun metro kubiko guztiak eta askoz gauza gehiago disfruta itzazu.

[ford.es](http://ford.es)

8.990€



ford.es

### FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR

Tel.: 943207650

### ZIORLA AUTOAK

Santa Maña kalea, 19 IURRETA

Tel.: 946815135



# Arriaundiko pastelgintzako bost langile kaleratu dituzte

LAB: "Pixkanaka pastelgintza saila suntsitzen dabil zuzendaritza"

**IURRETA** Amaia Ugalde Arriaundi SLko zuzendaritzak bost behargin kaleratu dituela salatu du LAB sindikatuak asteon. Asteburuan jaso zuten kaleratzeen berri. Pastelgintza sailean ordezkariak duen sindikatuak subrogazio orokorra eskatu zuen, pastelgintzako behar-

gin guztiak okintzara orain arteko baldintzekin pasatzeko, baina gertakariak ez doaz bide horretatik.

Hamabost behargin izan ditu Arriaundiko pastelgintzak. Euretako bost pastelgintzatik okintza sailera subrogatu zituen zuzendaritzak, irailean, eta bes-

te bost asteburuan kaleratu ditu: "Gelditzen diren bostekin ez dakigu zer gertatuko den, baina argi dago pixkanaka pastelgintza atala suntsitzen dabilela zuzendaritza", azaldu dute LABetik. Bost langile horiek pastelgintzan daude kontratatuta, eta ordu batzuk okintza sailean egiten dituzte.

Gaur dira batzartzeakoak sindikatua eta zuzendaritza, kaleratzeen inguruan eta lan egutegiak direla-eta izan dituzten auzien inguruan berba egiteko.

## LABen eskariak

LAB sindikatuak kaleratzerik ez egotea eta lanpostu guztiak okintzan subrogatzea gura duela azaldu du: "Baina pastelgintza kontratuen baldintzekin, legeak dioen moduan". LABekoek kritikatu dute okintza sailera subrogatutako bost langileek ez dituztela jatorrizko lan baldintzak.



Atzo, Durangoko Andra Marian egindako protesta.

## Orobiogoita eskola jasangarri izango da beste hiru urtez

**IURRETA** A.U.

Eguaztenean, Kurasaalean egindako 25 urte jasangarritasunaren alde ekitaldian, Eskola Jasangarria ziurtagiria berri diote Juan Orobiogoitia institutuari. Ingurumen arloan Eskolako Agenda 21 prozesuan egindako lanagatik jaso du datozen hiru urteetarako ziurtagiria.

Azken hiru urteotan ingurumen arloan egindako hobekuntzak aurkeztu behar izan dituzte ziurtagiria berritzeko. Urteotan, besteak beste, Iturburuko ortu ekologikoetan lanean hasi dira; jantokiko hondakinekin konposta egiteari ekin diote, gero ortuetan erabiltzeko; eta ingurumenari buruzko dokumentalak partekatu dituzte familien artean.

EAEko 23 ikastetxeri bannatu diete ziurtagiria Iñigo Urkullu lehendakariak, eta Cristina Uriarte eta Ana Oregi sailburuek.

## SEI HANKAKO MAHAIA

**DANI MAEZTU**

Aralar



## Azaroak 9

Durangoko Udaleko azken oso bilkuran, EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin, mozio bat onartu genuen. Mozio horretan, Kataluniari herri bezala dagokion erabakitze-ko eskubidea aldarrikatzeaz gain, Estatu Espainolaren jarrera antidemokratikoa salatu genuen. Legeak herritarren borondateak sortzen dira, beraz, ezin da legea herriaren borondatearen gainetik ezarri. Hierarkia demokratikoko oinarriko printzipioa da hori.

Ez ninduen harritu goitik behera ustelduta dagoen eta gure artean residuala izatera kondenatuta dagoen Alderdi Popularraren diskurtsoak. Aipagarria da, ordea, PSEk, beste alderdi ustez ezkertiar batzuekin batera, defendatzen duen argudioa: gaur egungo egoera sozioekonomikoan herritarrek dituzten benetako arazoei irtenbidea eman behar diegula eta ez dugula eztabaida independentistetan murgildu behar. Independentzia, batez ere aldarrikapen identitarioa izatetik, beharrian soziala izatera pasatu da. Izan ere, gaur egun, Estatuak erabakitzen du gure langileen lan-baldintzak zeintzuk izango diren, natur

baliabideen inguruan erabakiak hartzen ditu, azpiegitura arloetan zeresan guztia du, politika energetikoa bere eskuetan dago. Harrigarria, baina denden ordutegia ere dekretu bidez inposatu dezake gure herrialdeetan. Beste hainbat arlo aipatu ahal izango nituzke, guztiak funtsezkoak garapen eredu justu eta orekatuagoa ezarri ahal izateko.

Autogobernuko estatus juridiko-politiko batetik erabateko burujabetza izatera pasatzeak ez du bermatzen eredu sozioekonomikoaren aldaketa; baina, behintzat, eraldaketa hori egin ahal izateko tresna guztiak gure eskuetan uzten ditu.

## Pilotalekuko eta eliza kanpoko argiak aldatu dituzte

**GARAI** Markel Onaindia Pilotalekuko eta San Migel eliza kanpoko fokuak aldatu ditu udalak. Urrian hasi zituzten obrak, eta hil horretan bertan amaitu zituzten. Foku zaharrak kendu, eta horien ordezkari kontsumo baxuko LED argiak ipintzea izan da proiektuaren helburua.

Aurtengo aurrekontuetan sartutako egitasmoa izan da argiak aldatzearena, eta horretarako laguntza eskatu zioten Bizkaiko Foru Aldundiari. Horrek 20.000 euro eman zizkion udalari, aurrekontuaren %60.

## Lau argazki erakusketa, datozen lau asteburuetarako

Ilargi argazki taldeak antolatu ditu erakusketak

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban Argazkizaleentzat hainbat hitzordu antolatu ditu Ilargi argazki taldeak azarorako. Asteburu honetan izango da lehengo hitzordua: Elorrioko argazki taldeko argazkizaleek *ura* gaitzat hartuta egindako argazkiak ipiniko dituzte erakusketan. Azaroaren 14an, 15ean eta 16an, aldiz, Ilargi argazki taldeko zazpi egileren lanak ipiniko dituzte erakusketan. Hirugarren asteburuan, Fernando Retolaza eibartarraren *Nepal, mendia eta hiria* bildumako argazkiak erakutsiko dituzte.

Euskal Herria kaleko 8. zenbakiko lokalean atonduko dituzte erakusketa guztiak. Barikuetan (18:00etatik 20:00etara), zapatuetan (12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara) eta domeketan (12:00etatik 14:00etara) egongo dira ikusgai.

Ilargi argazki taldeak antolatu duen XXIV. Argazki Lehiaketara lanak aurkezteko epea ere hil honetan amaituko da: azaroaren 19an. Lehiaketa horretara aurkezturiko argazkietako batzuk erakutsiko dituzte azaroko azken asteburuan: 28an, 29an eta 30ean.

## Sabel-dantza ikastaroan hilaren 15era arte eman daiteke izena

**ATXONDO** Joseba Derteano Atxondoko Lamiak elkarteak sabel-dantza ikastaroa antolatu du bigarrenegoz. Iaz hilabete biko ikastaroa antolatu zuten hamasei lagunekin, eta, Marimar Esteban elkartearen presindentearen berbetan, "oso gustura" geratu ziren. Horregatik, aurtentzainera arte iraungo du. Iaz denak emakumezkoak izan ziren, baina gizona ere irekita dagoela gogoratu du. Izen-ematea liburutegian egin daiteke azaroaren 15era arte. Saiok eguenetan izango dira, 16:30etik 18:30era, lehengo gimnasioan.

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK  
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - Iurreta  
www.zarateyelexpe.com

**momotxo**  
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12  
48200 Durango  
Tel.: 946 811 005

**Arriike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403



**Koldo Zarate** | Euskal Herrian Euskaraz elkarteko Bizkaiko koordinatzailea | Durango, 1982

## “Ezagutzari dagokionez, eskualde euskalduna dugu, baina egoera dramatiko da erabilerari dagokionez”

Euskal Herrian Euskaraz elkarteak 35 urte egin ditu martitzenean, azaroaren 4an

**> EUSKARA** Joseba Derteano Aste honetan hasi eta abenduaren 3ra arte, Euskararen Nazioarteko Eguna arte, euskararen normalizazioan lanean dabilzanak gonbidatu bereziak izango dira ANBOTOn. Urteko 365 egunetan egindako beharra aitortzeko helburua du atal honek. Lehen gonbidatua Koldo Zarate da. Euskal Herrian Euskarazek 35 urte egin ditu asteon, azaroaren 4an.

**Zelan sortu zen EHE orain 35 urte?**

Euskalgintzaren inguruko lagun batzuk batzen hasi ziren Lesakan (Nafarroa). Ikastolak, euskaltegiak eta beste mugimendu batzuk martxan zeuden, baina ikusten zuten alderdiek eta beste mugimendu batzuek egiten ez zituzten politika sozialak behar zirela euskararen alde borrokatzeko. Egoera horrek arduratuta batu ziren lehenengoz. Sortze agiria Durangon sinatu zuten, Liburu eta Disko Azokaren testuinguruan.

**Zeintzuk dira EHEk gaur egun dituen funtzio nagusiak?**

Herritar talde bat izan da beti, eta herritarrekin egin du lan. Urte askoan hizkuntza eskubideen defentsa izan da lan ildo nagusia. Azken urteetan, hausnarketa prozesu baten ostean, beste esparru batzuk ere lantzen hasi da: euskaraz bizitzeko hautua indartzeko dinamikak sustatzen, adibidez. Azken urteetan *Euskaraz bizi* da gure mezu nagusia. Bide horretan hiru ildo jorratzen ditugu. Lehenengoa udal administrazioa da, udalek eskumen asko dituztela eta herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa dela uste dugulako; herritarrak bide horretan aktibatu gura ditugu. Bigarren ildo hezkuntza da, uste dugu garrantzitsua dela eredu bakar eta euskalduna. Hirugarrena norbanakoak dira, dinamika guztiak norbanakoei begira egiten ditugu, uste dugulako aldaketak emateko herritarrek izan behar dutela protagonista, eta aktibazio hori bultzatu gura dugu.

**Eta zelan aktibatzen dira herritarrak?**  
Aspaldian mundu osoa dabil



Koldo Zarate Euskal Herrian Euskaraz elkarteko Bizkaiko koordinatzailea.

errezeta horren bila. Ez da erraza, kostatu egiten da jendea aktibatzea, baina ahalik eta dinamika parte-hartzaileenak bultzatu behar dira. Esaterako, *Udala eta biok euskaraz* dinamikagaz hasi ginen iaz. Zuzenean herritarrekin lantzen den dinamika da, azkenean herritarrek eurek joan behar dutelako udaletxeetara eskaera zehatz batzuk egitera.

**Zein da euskararen egoera Durangaldean?**

Euskararen ezagutzari dagokionez, nahiko eskualde euskalduna dugu, baina, jarrerari eta erabilerari dagokionez, egoera dramatiko da. Jaio nintzenetik izugarrizko atzerapausoa eman dela uste dut. Euskararekiko eta bere erabilerarekiko kontzientzia galdu egin da.

**Martitzenean mahai inguru bat antolatuta zenuten Durangon, Gotzon Barandiaran kultur-gile, Kontseiluko Paul Bilbao eta Uemako Miren Belastegigaz.**

Gai asko jorratu ziren. Esaterako, azken aldian euskarari egindako erasoak: Ziburuko (Lapurdi) ikastola, *Berria* egunkariari emandako diru-laguntzak, udaletan hizkuntza politika aurrerakoiak proposatzerakoan Carlos Urkijok (Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkaria) hartu izan duen jarrera... Aurrerantzean hizkuntza politika burujabeak garatu behar direla eta euskararen inguruko lege gehiago behar direla aipatu, eta adibide bat ipini zuten: laguntzetan *Berriari* murriztutako kopurua AHTaren hamar metro eraikitzeko bestekoa da.

**EUSKARAK  
365  
EGUN****> DURANGALDEA ASTEON**

### Castet elkartearen urteurren jaia

**ZALDIBAR >** Zapatu Laranja aldarrikapen eguna ospatuko dute Zaldibarren, bihar, *22 urte ta aurrera... Castet libre ta zabalik* leloagaz. Egun osoko egitaraua antolatu dute. Santamañezarrera igoera egingo dute, 10:30ean; bertso bazkaria, 14:30ean, eta, ondoren, poteoa. Azkenik, bideo emanaldi bategaz amaituko dute egitaraua.

### ‘Salerosketak be euskeraz’ zozketa

**DURANGO >** Lamiak dendan emandako 286.176 zenbakia izan da azaroaren 1eko *Salerosketak be euskeraz* zozketan sarritua. Zenbaki horren jabeari egokitu zaio herriko dendetan euskararen erabilera bultzatzea helburu duen kanpainaren barruko hamahirugarren iPada. Guapa dendan emandako 284.053 da ordezkari zenbakia.

### Egoiliarrentzako aparkalekuak

**IURRETA >** Aparkatzeko arazoak konpontzeko eta iurretarekin lehentasuna emateko helburuz, herritarrentzat gordetako aparkalekuak atondu dituzte Tellitun, Zubiaurren eta Bidebarrietan. Herritarrek txartela atera behar izan dute egoiliarrentzako plazak erabiltzeko. Astelehenean hasiko dira ordentza berria aplikatzen.

## **Iritzia**

### LOMCEri ez. Gure hezkuntza eraiki

LOMCE legeak gure hezkuntza sisteman izan dezakeen eragin negatiboaz ohartuta, LOMCEri Ez lelopean irakasle, ikasle eta guraso talde bat elkartzen hasi gara Durangon. Gutun honen bidez taldea sortzeko izan ditugun arrazoiak azaldu nahi ditugu.

Hasteko, hezkuntzaren kalitateaz zer ulertzen dugun azaldu nahi dugu. Gure iritziz, kalitatearen kontzeptua oinarritzko bi eskubiderekiko lotu behar dugu: banakako eskubidea eta komunitate bateko hezkuntza eskubidea. Banakakoaren kasuan, aukera berdintasunaren markoan kokatzen dugu kalitatezko hezkuntza. Gizarteari begira, bere garapen soziala eta kulturala bermatzen duen sistema izango da kalitatezkoa.

Curriculumaren antolaketari begira, LOMCE legeak egiten duen ikasgaien mailakatzea azpimarratu nahi dugu: enborrezkoak, espezifikokoak eta espezialitatekoak. Mailakatze honen bidez Estatuak edukien kontrola areagotzeko aukera izango du, bere esku geratzen delako enborrezkoak zehaztea. Kontrola areagotzeko beste baliabide nagusia ebaluazioa izango da. Estatuaren esku geratzen baita ebaluazioaren edukiak eta probak elabortatzea. Ebaluazioaren emaitzak eskola onak eta txarrak, eta ikasle onak eta txarrak bereizteko erabiliko dira.

Testu honetan sartzan ez diren beste hainbat gairen inguruan hausnarketa eta ekimenak suspertu nahi ditugu. Bideari ekiten hasteko hitzaldi bat antolatu dugu, azaroaren 13an, Plateruena Kafe Antzokian: *LOMCEri ez, gure hezkuntza eraiki. Orioko esperientzia*.

### Abadiñoko Independentetek eta EAJK uko egin diote Espainiako inposaketari ezetz esateari

Urriko udalbatzarrean EH Bilduko zinegotziok, udaletxeko balkoian Espainiako bandera jartzearen inposizioaren aurkako mozio bat aurkeztu genuen, Espainiako Gobernuaren erabaki hori salatzeko. Mozioak adierazten zuen egungo aro politikoaren aurkako eraso bat dela, eta Abadiñoko herritarrek bakarrik izan beharko luketela beraiek ordezkatzeko dituzten ikurrak aukeratzeko eskubidea eduki beharko luketenak.

Udalari eskatzen zitzaien desadostasun hori gobernuari berari, hedabideei eta herritarrei helarazteko. Erantzun bezala, herriko eraikin publikoetan ikurrina jartzea, eta udaletxeko plazan, inposaketa hau salatzeko, ekitaldi baterako deia luzatzea proposatzen zen.

EH Bildutik alderdikeriak baztertu, eta denon artean bide bateratu bat adosten saiatu ginen, gainontzeko taldeekin batzartuta. EAJ abstenitu egin zen, erabakia alkatearen esku geratzen zela azalduta. Mozio baten aurrean, talde bakoitzak iritzia eman eta posizioa beharra du, erabakia besteen esku utzi ordez. Zertarako ote daude orduan EAJK zinegotziak udalean? Gainera, alderdi abertzale bat izaki, ez luke Espainiako bandera jartzearen inposizioa salatzeko inongo zalantzarik izan behar, baina ez ziren gai izan mozioa onartzeko.

Aik, beste behin ere, bere ildo ideologikoa agerian utzi, eta ezezko botoa eman zuen, gaiari isiltasunez aurre egin ziotela eta isiltasunean jarraituko zutela esanda. Oso arduratzekoa da udal bateko gobernu talde batek herriak hautatu ez dituen erabakien aurrean isiltasunez jarraituko duela argudiatzea.

Rosa Mintegi, Jabier Iraeta, Mariam Bilbatua eta Izaskun Duñabeitia LOMCEri ez Durangoko taldeko kideak

Aitor Azueta, Saio Zuazubizkar, Hiba Urrutia, Irakusne Gorospe eta Maria Luisa Larringan Abadiñoko EH Bildu



**astekaria@anboto.org**  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea:** Bixente Kapanaga 9, 48215  
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia  
**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarfeak barne).



## **> Berbaz**

# Otxandioko hautetsiak elkarbizitzarako bide berriak zabaltzen

Andikonako Foroan zinegotzi ohiak eta gaur egungoak bildu dira, bakegintza lantzeko asmoz

**> BERBAZ** *Jone Guenetxea*  
Gainerako alderdietako zinegotziekin makina bat eztabaida izandako espazioan, Otxandioko Udaleko udalbatzar aretoan, batu dira elkarriketatuak. Oraingoan tentsio barik daude. Alderdietako jantziak erantzi, eta bihotzetik hitz egiteko etorri dira. Dolores Uribe EAJko zinegotzia izan zen frankismo osteko lehenengo legegintzaldian, Jose Ignacio López de Letona EAkoa, Juan Luis Orobengoa Euskadiko Ezkerrakoa eta Amaia Lasuen Herri Batasunakoa. Andikonako Foroan parte hartzen diharduten Otxandioko zinegotzi ohietako batzuk dira aipatutako horiek. Elkarbizitza eta bakegintza lantzen dabiltza. Egindako hausnarketak herritarrei hurreratu guran, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Ekimenean ez dute alderdietako kide gisa parte hartzen, norbanako gisa baizik.

**Zelan sortu zen Andikonako Foroa?**

**Dolores Uribe:** Memoria historikoaren inguruan hainbat lan egin eta gero, demokrazia denboran, udaletxean, hain desberdin pentsatu dugunok batzea proposatu ziguten. Gure artean berba egiten hasi ginen. Alderdi guztietako zinegotzi izandakoak batu gara, eta oso polita izan da. Denbora askoan elkarri begiratu barik egon gara. Lehenengo legegintzaldian egon nintzen. Hainbat tentsio bizi izan genituen, egoera oso txarra zen, gauza asko gertatu ziren, eta dena etortzen zen udaletxera. Udaletxean izaten genuen enfrentamendua kalera irteten zen gero. Egia esan, kalean bizimodu horregaz jarraitzen genuen. Foroan hasi garenetik, agian, herriarentzat ez dugu asko egin, baina guretzat bai. Beste konfiantza bat hartu dugu. Horrela herriko egoera hobetzea da asmoa. Lehengo gorrotoak konpondu barik egon dira. Hori bai, foro honetan bakoitzak maila pertsonalean hartu du parte, ez alderdi bateko kide gisa.

**Zelan gogoratzen dituzue urte haiek?**

**Amaia Lasuen:** Ekainean sartu ginen udaletxean, eta uztailean

Lucia Urigoitia hil zuten. Lutxi-  
ren neba EEko zinegotzi zegoen.  
D.U.: Aitortu behar dugu gauza  
asko ez genituela ondo egin. Al-  
de batetik, urte onak izan ziren  
dirua barra-barra genuelako; di-  
ru-laguntzak zeuden, esaterako.  
Bai, kaleak eta plazak konpondu  
genituen, baina herriko elkarbi-  
zitzaren alde ez genuen ezer egin.  
Horregatik diot foro honetara  
nire izenean natorrela, ez alderdi  
baten izenean. Gainera, guretzat  
ere aberasgarria da. Familian  
eta lagunartean banatuta bizi  
ginen, gertatzen ari ziren gauzen  
ondorioz.

**Zeintzuk dira foroaren helburuak?**

**Juan Luis Orobengoa:** Haute-  
tsien arteko ezinikusiak konpon-  
tzea zen asmoa, eta lehenengo  
pauso batzuk eman ziren. Udabe-  
rrian oinarriak adostu genituen,  
elkarbizitza herrira zabaltzeko.

**A.L.:** Talde terapia hori oso ba-  
liagarria izan zen, asko gustatu  
zitzaidan. Asmoa udaletik he-  
rrira begira zerbait egitea zen.  
Andikonako Foroa herritarrei  
zabaltzea proposatu zen. Oina-

**25**  
zinegotzi eta zinegotzi ohik  
parte hartu dute  
Andikonako Foroan

ria elkarbizitza da, elkar ulertu  
eta elkarrekin bizi. Planteamen-  
dua ondorengoa da: hasierako  
irakurketa 36ko gerratik demo-  
kraziara arte egin zen. Gero,  
demokraziako urteak, guk bizi  
izan ditugunak. Eta hortik au-  
rrera zer? Onartu genuen Euskal  
Herriaren arazo politiko bat dago-  
ela eta hori gainditu egin behar  
dugula. Denok elkarlanean eta  
elkarrekin bizitzen pausoak  
aurrera emateko sortu zen hau  
guztia. Garaiak aldatzen zihoa-  
zen arren, eta ETak behin betiko  
armak utzi arren, herriaren alor  
askotan harremanak hautsita  
zeuden. Zubi horiek eraiki egin  
behar dira, eta elkarbizitza sortu  
behar da berriro, herriak herri  
moduan funtzionatzeko.



Ekzerretik eskuinera, Uribe, López de Letona, Lasuen eta Orobengoa Otxandioko udalbatzar aretoan

**J.L.O.:** Amariari garai hartan zer  
edo zer esan nion, eta urte as-  
koan damututa egon naiz.

**A.L.:** Barkamena eskatu zeni-  
dan.

**J.L.O.:** Honegaz hori lortu dugu.

**Aurrerapausoak eman dituzue,  
beraz.**

**A.L.:** Egia da beste belaunaldi ba-  
tzuek, sasoi hori bizi izan ez dute-  
nek, beste mentalitate bat dutela.  
Askoz ere zabalagoak dira. Guk,

ostera, karga edo motxila hori  
dugu. Hainbat jatorritako indar-  
keria egon da ordutik hona, bai-  
na hori guztia gainditzen joan ga-  
ra. Demokrazia sasoi honetan,  
momentu batean beste belaun-  
aldi bat sartu zen Otxandioko  
udaletxera, eta horien esku ere  
badago gaur egungo une hau.

**Adostutako lan ildoak zelan  
zehaztu dituzue?**

**J.L.O.:** Foroko parte-hartzaile ba-

tzuen aldetik ahalegina egin zen  
oinarriak proposatzeko. Doku-  
mentu hori foroan eztabaidatu  
zen, eta denok onartu genuen.

**Andikonako Foroan parte har-  
tzeak zer suposatu du zuentzat  
maila pertsonalean?**

**J.L.O.:** Lasaitasun handia eman  
dit. Elkarbizitzarako erreminta  
on bat dela deritzot, bestela ez  
nintzateke hemen egongo. Des-  
berdinak izan arren, zure burua-



2013. urteko Andikonako omenaldian foroaren izenean egindako agerraldia.





ri galdetu behar diozu: “Ni nire iritziagaz bakarrik ibili naiteke munduan? Edo beste batzuekin batera bizi gura dut? Zer helburu ditut bizitzan, nire ideiak bakarrik aurrera eramateko?” Ez du zentzurik. Foro hau ideia ona izan da, eta babestu egin dut. Gure gurasoek txarrago pasatu zuten, eta guk ere nahiko txarto. 1978tik 1986rako urteak pasatu nituen udaletxean.

**Egitaraua prestatzea zelan bururatu zitzaizuen?**

**Jose Ignacio López de Letona:** Ahalegina egin behar da Estatu mailan, eta baita Euskal Herri mailan ere, bakegintza arloan. Otxandion ere zer edo zer egin genezakeelakoan geunden. Herriarregana heltzeko zer egin genezakeen pentsatzen hasi ginen: hitzaldiak, dokumentalak... Pauso txikiak eman gura izan ditugu urte batzuk barru hobeto egon gaitezen. Gai hau planteatzen duten filmak aztertzen hasi ginen, eta hori izan da prozesua.

**D.U.:** Esan beharra dago Lokarriren bidez ere hainbat gauza egin ditugula. Edozertan laguntzeko

“**Andikonako Foroak elkarbizitzarako erreminta on bat dela uste dut**”

“**Gure artean hizpide zena herritarrei zabaltzea izan da asmoa**”

prest daudela esan digute, eta laguntza handia eman digute.

**A.L.:** Ikusten genuen urtero Andikonako adierazpena egiten zela jaien inguruan, eta gu biltzen hasi ginela, baina herrira begira beste pauso bat eman beharra zegoela. Izan ere, Andikonako omenaldian azken urteotan irakurtzen diren idatziak Andikonako Foroaren izenean irakurri ditugu. Ondoren, lasaiago antolatu, eta, udazkenara begira, Andikonako Foroak ekitaldiak antolatzea erabaki genuen. Gure artean hizpide zena jendeari zabaltzea zen asmoa, eta horretarako ekitaldiak antolatzea.

**Zelan joan dira orain arteko ekitaldiak? Zelako balorazioa egin duzue?**

**A.L.:** Oso ona. Lehenengoa urriaren 17an izan zen, *De Txillarre a Aiete. Un largo camino en el proceso de paz* dokumentala izan zen. Urriaren 24an, berriz, *Hablan los ojos* filma proiektatu genuen, eta, ondoren, solasaldi oso interesgarria sortu zen Rosa Roderoren, ETAK hildako Joseba Goikoetxea ertzainaren alargunaren, eta Jo-

xe Agirre preso ohiaren artean. Mahai berean hemezortzi urtez kartzelan egon den preso bat eta, aldamenean, gizona hil ziotelako alargun geratutako emakume bat berba egiten ikustea itzela izan zen. Mahai gainean politika eta sentimenduak zeuden. Lezio bat eman zigutela esango nuke.

**Dolores Uribe:** Momentu batean nire baitan pentsatu nuen zein gutxi egiteko kapaz garen horrek pertsona biak, hain desberdinak izanda, hain argi elkarri begiratzeko gai badira. Normaltasunez egin zuten berba, eta harrigarria izan zen jendearen galderak zelan erantzun zituzten. Hirurogei lagun inguru batu ginen. Uste dut han egon zirenek ez dutela egun hori ahaztuko. Oso aberasgarria izan zen. Bai jendea, bai niri pentsarazi egin ziguten.

**J.I.L.L.:** Inongo gorrotorik gabe hitz egin zuten.

**Otxandio zelan irudikatzen duzue etorkizuneari?**

**A.L.:** Nik uste dut Otxandion ere kapazak izan behar dugula eduki ditugun gorroto eta ezinikusi horiek guztiak gainditzeko. Uste dut aspaldi hasi ginela gainditzeko, eta gainditzeko joango gara. Etorkizunari begira jarri behar dugu. Bakean dagoen herri bat da etorkizunerako denok gura duguna, eta elkarbizitza onategaz. Nahiz eta desberdin pentsatu, saiatu behar dugu gauzak beste modu batera izan daitezen. Andikonako Foroak esparru hori jorratuko du, baina, arlo politikoari dagokionez ere, Euskal Herriaren erabakitze eskubidea garrantzitsua da. Erabakitze eskubidea Euskal Herriaren elkarbizitza ekarriko duen oinarritzko kontzeptu demokratikoa da. Hori lortzen den eguean elkarbizitza askoz errazagoa

## EGITARAUA

**Azaroaren 7an**  
‘Mariposas en el hierro’  
dokumentala  
19:00etan,  
kultur etxean

**Azaroaren 14an**  
Mahai ingurua  
19:00etan,  
Mainondoko gimnasioan  
‘Erabakitzeo eskubidea, elkarbizitza normalizatu baterako printzipio demokratikoa’

Iñaki Zarraoa  
Gema Zabaleta  
Ibon Arbulu

izango da, bitartean herritar batzuek ez dutelako biderik euren helburuak lortzeko. Euskal Herriari dagokion gai bat da hori. Hala ere, etorkizunari begira, eguneroko bizitzan gauza batzuk aldatzen dabilzala nabari dugu, batez ere, belaunaldi berriekin.

**D.U.:** Gertatzen diren gauzen arabera, batzuetan ilusioak egiten ditut. Pentsatzen dut nire seme-alabak bake handiagoan biziko direla. Beste batzuetan, aldiz, pentsatzen dut ez dakidala utziko diguten. Nik ilusioagaz ikusten dut, ez hainbeste neuretzat, seme-alabentzat baino.

**J.I.L.L.:** Pauso hauek Otxandion ematea gauza handia dela uste dut. Orain apurtxo batzuk gara, baina geroago eta gehiago gara. Lehen arazoak nituen kalean batzuekin hitz egiteko, eta orain ez dut arazorik. Nire moduan, beste batzuk ere igoko dira gurdi honetara, eta ostetik datozenen eta gure artean aurrerapausoak emango ditugu.



## Otxandioko Andikona plaza, bonbardaketan helburu

Bonbardaketan 61 pertsona hil ziren, 1936an

Andikonako Foroaren izenaren jatorriak esanahi berezia du otxandiarrentzat. Izan ere, 1936ko uztailaren 22an, herriko jaiak ospatzen ari zirela, gerra hegazkin faxistek Otxandioko Andikona plaza bonbardatu zuten. Erasoak 61 hildako utzi zituen, gehienak emakumeak eta umeak. 36ko gerra hasi berri zen, eta zibilen kontra gertatutako lehenengo bonbardaketa jasan zuen Otxandiok.

Andikonako plazak esan-gura handia du ordutik hona herritarrentzat. Bonbardaketan hildakoak gogora ekartzen dituzte jaietan, urtero. Andikonako Foroako parte-hartzaileek idatzia irakurri dute azken urteotan. Plaza eraberritu egin zuten bonbardaketaren 75. urtemugarako. Gainera, Nestor Basterretxea artista bermeotarraren eskultura inauguratu zuten plaza horretan.





# GREMIOEN GIDA



## DEKORAZIOA

**Jaio barnizatuak**

- Marroken, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialden, 45 Garata A - Berriz.  
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421  
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com



## GARBIKETA

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak  
Obra osteko garbiketa  
Kristalitzatuak eta abar

Goietia, 10 - 2 esk. - ELORRIO  
Tel.: 946 820 991



## LOREZAINNTZA

*Jardines*  
**Patxi**  
*Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23. 1. esk PATXI  
48200 DURANGO 696 463 085



## ITURGINTZA

**Urtiaga**

Proiektu eta Erreformak, S.L.  
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU  
AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solagurua kalea 3 - Tol.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374  
Emaila: urtiaga@urtiaga.info - MATENA-ABADIÑO

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com

**K21**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak  
zure zerbitzura!**



# Jazzaren eta bluesaren zaleentzat luxuzko eskaintza Elorrion

Jazz Blues Jaialdiaren 25. edizioa antolatu dute

## > MUSIKA Itsaso Esteban

Euskaldun gazte bik, Joseba Baleztenak eta Félix Buff-ek, zabalduko dute Arriolako 25. Jazz Blues Jaialdia. Joseba B. Lenoir Duo proiektua aurkeztuko dute, azaroaren 13an, 21:30ean, Elorrion. Blues kantak eskainiko ditu gitarrak, ahotsak eta bate-riak osaturiko bikoteak.

Datorren egueneko emanaldiaren ostean, beste hiruna jazz eta blues emanaldi dakartza Elorrioko jaialdiak. Euskal Herriko zein nazioarteko musikariek osaturiko egitarau erakargarria osatu dute antolatzaileek.

Azaroaren 14an, 22:30ean, hirukote forman, jazz izango da jaialdiko protagonista: Juan Ortiz pianistaren proiektua eza-gutu ahalko dute kontzertura hurreratzen diren musikazaleek. David Ruiz kontrabaxuan eta Borja Barrueta baterian izango ditu Ortizek ondoan,

22:30ean. Jazz klasikoa eta abangoardiakoa uztartuta, Juan Ortizek munduan zehar egindako bidaietan sorturiko doinuak oinarri hartuta jardungo da hirukotea. Soinu fresko eta berri-tzailea eskainiko dute.

Egueneko blues musikari bikotearen eta barrikuko jazzlarien ostean, sei musikariz osatutako taldea gonbidatu dute Elorriora: gitarrak, teklatura, harmonika, kontrabaxua, bateria eta ahotsak uztartuta ariko da Tino Gonzalesek, Leburn Maddoxek, Julio Lobošek, Antonio Serranok, M. Nietmietzek eta Carlos Amoresek osaturiko seikotea. Gonzalesen jaioterriko (Chicagoko) bluesa, funkya, soula, hip hopa eta musika latinoak uztartzen ditu taldeak. Besteak beste, Solomon Burkegaz eta Chuc Berrygaz jo izan duten musikari horiek entzuteko aukera izango da, azaroaren 15ean.



Slam Allenek blues eta soul doinuak uztartuko ditu azaroaren 22ko emanaldian.

Musikazaleek agendan seinalatu beharreko lau eguneko beste asteburu bat ere prestatu dute Elorrioko jaialdian: Iñaki Salvador piano-jotzaile donostiarra Andrzej Olejniczak saxofonistak lagunduta ariko da azaroaren 20an. 1993an el-

karrekin *Catch* diskoa grabatu ostean, berriro elkartu dira jazz musikari biak.

Jazzeko boskote klasikoa osatuta etorriko den Gabacho Connectionek, saxofoia eta tronboia baliatuko ditu, esate baterako, azaroaren 21eko kontzertuan.

· Azaroaren 13an, 21:30ean  
**Joseba B. Lenoir Duo**

· Azaroaren 14an, 22:30ean  
**Juan Ortiz Trio**

· Azaroaren 15ean, 22:30ean  
**Tino Gonzales, Leburn Maddox, Julio Lobos & Antonio Serrano**

· Azaroaren 20an, 21:30ean  
**Iñaki Salvador & Andrzej Olejniczak**

· Azaroaren 21ean, 22:30ean  
**Gabacho Connection**

· Azaroaren 22an, 22:30ean  
**Slam Allen**

## PORTALEKUAN

· Azaroaren 23an, 20:30ean  
**Txus Blues & Jose Bluefingers**

Bere misioa “publikoa zoriontsu egitea” dela dioen Slam Allenek bluesa eta soul doinuak uztartuko ditu azaroaren 22an. Portalekua tabernan emango dute jaialdia amaitutzat, Txus Blues harmonika-jotzaileak eta José Bluefingers gitarristak.

## Joseba B. Lenoir: “Felixen bateriak hegalk ematen dizkit taula gainean”

Felix Buff-ek bateriagaz lagunduko dio Joseba Baleztenari (Bera, 1984) Elorrion



Jon Iraundegi.

‘Tenpesta’ diskoko kantak dira Elorrion eskainiko dituzanak? Bai. *Tenpesta* da grabatu dudana azken lana, eta bertako kantak eskaini nahi ditut. Edozelan ere, *Isntroak Vol. 2* eta aurreko nire diskoetako kantak ere joko ditugu. Bertsioren bat ere eskainiko dugu, gainera, eta hurrengo diskorako sorturiko abestiren bat ere bai, aurrerapen gisa.

Noiz eta zelan sorturikoa da Felix Buffen eta zure arteko harreman musikala?

Badira urte batzuk. Willis Drummond taldearen lehen diskoa kaleratu zen garaian ezagutu genuen elkar, eta lagun egin ginen. Gure arteko harreman musikala *Instroak Vol. 2* diskoaren grabaketan sendotu zen. Berak grabatu zituen disko-

bateriak. Oso bat-batekoa izan zen; abestiak alde aurretik apenas entzun gabe etorri zen estudioa, baina bere lanak beste dimentsio bat eman zion diskoari. *Tenpestan* ere bera arduratu zen bateriaz, eta harrezkero zuzenekoetan nigaz etortzen da ahal duen guztietan. Zuzenean zein estudioan, ezin hobeto ulertzen dugu elkar; baina bereziki kontzertuetan: Felixen bateriak hegalk ematen dizkit taula gainean hegan egiteko.

Azkenaldian badirudi modan dagoela bateria-gitarra bikote formazioa Euskal Herrian. Zer dauka berezia?

Bai, egia da. Hemen zein nazioartean modan jarri da bikoteena. Niri askatasuna ematen dit bateria-jotzaileagaz ibiltzeak, eta Felixegaz konplizitate handia lortzen dut zuzenean. Egia esan, kantak banda osoagaz jotzeko idazten ditut, baina momentuz ezin izan dut formatu hori zuzenekoetara era-

man. Asko disfrutatu izan dut bikotean, eta, laster banda oso bategaz aritzeko planak ditudan arren, uste dut luzaroan jarraituko dugula bikotean.

Buffegaz partekatu duzun Willis Drummond proiektuan atsedean hartuko duzue.

Azaroaren 28an egingo dugu bira amaierako kontzertua, Hondarribiko Psilocybenean. Gero bizpahiru hilabeteko atsedenaldia hartuko dugu, hurrengo pausoak zehaztu baino lehen.

Zelako esperientzia izan da zuretzat Willis Drummond taldeko parte izatea?

Nire musika ibilbidean aurre-rapauso bat izan da. Astero-astero zuzenekoak ematen dituen rock talde biziki energetiko batera itzulera izan da niretzat. Asko ikasteko aukera. Gainera, lagun onak gara, eta asko disfrutatu dut hilabete hauetan eurekin bidaiatzen; gure musika ezagutzen dutenen zein egiten duguna guztiz arrotz duten entzuleen aurrean jotzen.

Zer dauka Berako urak hainbeste musikari on sortzeko?

Askotan egiten digute galdera hori... eta sekula ez dakit zer erantzun! Egia da musikari pila

dagoela Beran (Nafarroa), 3.500 biztanleko herria dela kontuan hartzen badugu. Musikari asko, eta kultura musikala handia dago. Gakoa partekatzea da. Gu, Sixtysexers jaio baino lehen, musikan muturra sartzen hasi ginenean, nagusiagoak izan genituen gidari. Tabernetan elkartzen ginen, eta musika eta pelikulak pasatzen zizkiguten. Gaur egun ere saiatzen gara Internet bidez bada ere, elkartruketa mantentzen. Bestetik, tabernek ere betetzen dute euren papera: Katakua ostatuan kontzertuak egiten dira, eta beti dago musika ona. Ertz jaialdia ere herriaren altxor eder bat da.

Nondik nora zabilta asteon?

Azken aldian, musika dela medio, asko bidaiatu dut, eta Birminghamera egin dudana oporretako bidaiatik bueltan naiz. Willis Drummond hartzendu nire denboraren zati handiena maiatzaz geroztik: Euskal Herrian, Espainian eta Frantzia ibili gara azkenaldian. Hilabete honetan *A ala B* biraren azken txanpan dihardugu. Bestalde, Sumisión City Blues taldeagaz ere kantak konposatzen nabil, eta beste hainbat proiektu ere badauzkat; diskoak grabatzea, esate baterako.



# Klezmer doinuekin zabalduko dute 25. Musika Hamabostaldia

Lau kontzertu antolatu dituzte Durangoko 25. Musika Hamabostaldirako

## > MUSIKA Itsaso Esteban

Kurutze Santu Museoa egingo dute Durangoko Musika Hamabostaldiko lehenengo emanaldia, bihar. Aragoiko (Espainia) Trivium Klezmer taldeak musika emanaldi dibertigarria eskainiko du. Klezmer musika oinarri hartuta, klarinete sopranoagaz eta klarinete baxuagaz, eta akordeoiagaz musika eklektikoa sortzen dute taldea osatzen duten hiru musikariek.

Musika Hamabostaldiaren programazioa antolatzen duten Bartolome Ertzilla Musika Eskolako Alfredo Sanz zuzendaria, Ana Celia Ormaetxea piano irakasleak, Natxo Martínez zinegotziak eta Aitziber Irigoras alkateak eman zuten joan zen egunean 25. urteurreneko programazioaren berri. Azpimarratu zuten, "publiko guz-

tiarentzat entzuteko erraza den musika", baina kalitate gorena, ekarri gura izan dute beste behin Durangora. Lau hitzorduk osatzen dute programazioa.

Cadaquesko orkestrako hamalau kidek osaturiko taldeak eskainiko du Musika Hamabostaldiko bigarren emanaldia, azaroaren 15ean. San Agustin kulturunean izango da kontzertu hori, eta, Ana Celia Ormaetxea irakasleak azpimarratu zuenez, Manuel de Fallaren lanaren interpretazioa eskainiko dute.

Durangoko musika eskolako ikasle izandako Andeka Gorrotxategi abadiñarrak ere parte hartuko du 25. Musika Hamabostaldian. Nazioartean opera rol garrantzitsuak interpretatzen dabil Gorrotxategi azken urtetan, eta 2015ean, Madril (Espainia), Plácido Domingoren

zuzendaritzapean, Granadosen *Goyescas* operan Fernandoren papera eskaini orduko bueltatuko da Durangon emanaldia



Aragoiko Trivium Klezmer taldea gonbidatu dute, bihar, Durangon jotzeko.

eskaintzera. Andra Marian eskainiko du Andeka Gorrotxategi emanaldia, eta Mario Lerena pianistak lagunduta ariko da.

Abenduaren 13an, Travellin' Brothers Big Band taldearen emanaldiak itxiko du 2014ko Musika Hamabostaldia. Gabonen inguruko kanten erreperitorioa eskainiko du talde horrek, blues eran, Durangoko San Agustin kulturunean.

## GEURE DURANGALDEA

### AINHOA URIEN

ikaslea



### Heriotzaren deserria

Domu Santu eguna pasa zen, eta badirudi, urteroko erriturari aurre eginda, beste hamabi hilabetez izan dezakegula lasai kontzientzia, lurpeko koko-harrak behatz puntak xurgatzen hasiko zaizkigun arte. Madrilen ez da Halloween ahaztuko, batzuk ahaztarazten saiatzen badira ere, bi urteotako egunerokotasunean hutsuneak oroitu du tragedia. Halloween festa arrotza omen, dirua ateratzeko jai inperialista, ez dakit ba egun nola har daitekeen jai, egun, gau hori; baina ez ei da moda berria, beste izen bateko Halloweena hemen ere izan baitzen. Hala kontatzen dute gure zaharrek: izarekin moztortzen zirela eta kalabazekin jendea beldurtu nahi izaten zutela defuntuen egunean, gauean (ikus [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com)).

Atzerritik etorri da hilketak kondenuatu dituen, akusatuak errudun bihurtu dituen, behingoz, izen eta abizenak egunkarien azaletan inprimatuaraziz. Frankismoaren krimenak ikertzeak, ordea, ez du laguntza larregirik jaso, defuntutzat jo behar diren horiek hilda daudela ere ziurra ez denean. "Goix baten eruen eben, ta ezta barriro etorri". Eta bitartean plakak, estatuak, noizbehinka loreak ... oraindik lurpeko zein zokotan dauden ez dakigun. Atzerritik etorri da pausoa, Servinik eman du, bidea zabalik izan baitu hemen hainbat jenderen eskutik. Muga politikoetatik haratago, heriotzak atzerritik konponduko ditugu, atzerriko ohitura zaharra, Halloweenen antzera, hemen ere errotua dela aldarrikatzeko.

## > KRONIKA > BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2014, MALLABIKO KANPORAKETA

# Kanturako gogoia eta publikoaren berotasuna josten direnean



## > AMAIA UGALDE

Publikoa bero ikusten dutenean bertsolari kutsatu egiten zaie berotasuna. Horixe kontatu zuen Mallabiko kanporaketa irabazi berriaren Gorka Ostolaza Potxis markinarra. Bai, giroa beroa izan zen Mallabian. Txapelketa hasi denetik

Mallabiko kanporaketa izan da jendetsuena; 400 lagunetik gora izan zen publikoan. Pilotaleku hotza berotu egiten da horrelakoetan, eta bero horrek eragina izaten du bertsoaldietan.

Bertsolariei animoak emateko pankarten atzean zeuden,

besteak beste, Markina-Xemein eta Getxoko bertsozaleak. Bi herriotan indartsu dago bertsozaletasuna, eta hori igarri egin zen Mallabian. Izan ere, puzzle edo *patchwork* berezia zegoen oholtzan. Hiru markina-xemeindar, batetik; Gorka Ostolaza Potxis, saioaren ira-

bazlea, eta Nerea Ibarzabal eta Eneko Arrate. Eurekin, bestetik, ALBE Algortako bertso eskolako bi bertsolari: Peru Vidal eta Arrate Illaro. Seigarren bertsolaria Malen Amenabar larrabetzuarra izan zen.

Bertsolari gazteez osatutako seikotea fresko ibili zen. Gero kontatu zuten kantatzera irten aurretik biribilean ipini, eta ariketa batzuk eta guzti egin zituztela, Eneko Arratek antzerki munduan ikasitakoak. Konplizitate, beraz, hasieratik. Eta publikoan konplizitate horretaz gozatzeko gogoia ere, hasieratik.

Kontu hotzagoak dira puntuazioak eta txapelketako sailkatuen zerrenda. Hori ere hor dago: Domekan, Zeanurin kantatuko dute azken sei bertsolariak. Hortxe, bada, publikoarentzat, bertsoen jostunekin gozaten jarraitzeko aukera.

San Agustinalde, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

MARTIN LUTHER KING  
WASHINGTON  
CURIOSITY

PADRES  
FÉLIX  
TERMITA

**Titzina Teatro**  
**Distancia siete minutos**

**Azaroaren 9an - 19:00etan**

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA

**Durangoko Kafe Antzokia**  
[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)

<b>AZAROAK 7</b> 22:30ean 10/12€	<b>AZAROAK 8</b> 22:30ean 8/10€	<b>AZAROAK 12</b> 20:00etan DOAN
 GEMMA MARTINEZ	 ASIER HORMAZA	 MARIBEL SALAS
<b>BERTAKO BAKARRIZKETAK</b> BAKARRIZKETA GAZTELANIAZ	<b>4BIDER2</b>	<b>EGUNEKO MENUA</b> ASTELEHENETIK LARUNBATERA
<b>NIÑA COYOTE ETA CHICO TORNADO + BAKELITE + VIVA BAZOOKA + KILLERKUME</b>	<b>KANTUAREN KANTOIA: KOKEIN BERBALDI MUSIKATUA</b>	

Landako etorbidea, 4 A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300



# Durangoko Baleukok ekoitziriko 'A escondidas', Zugaza zineman

Gaurtik astelehenera ikusi ahalko da filma Durangoko zinema aretoan



Rafa eta Ibrahim nerabeak dira filmeko protagonistak.

**> ZINEMA** Itsaso Esteban Durangoko Baleuko ekoizte-txearen *A escondidas* filma ikusteko aukera izango da datozen egunetan, Durangoko Zugaza zineman. Azaroaren 7an (19:00etan), 8an (20:00etan), 9an (21:00etan), 10ean (18:30ean), eta 13an (20:00etan) izango dira Asier Bilbao durangarra produkzio buru daukan filmaren emanaldiak. Egueneko emanaldian, Mikel Rueda zuzendaria ere egongo da, gainera.

Bi mutil nerabek elkarren arteko erakarpena zelan bizi duten kontatzen du, besteak beste, Tuterako Opera Prima jaialdian zuzendari onenaren saria eskuratu berri duen Mikel Ruedaren *A escondidas* filmak.

Adil Koukouh aktoreak egiten du Ibrahim izeneko 14 urteko mutil marokoarraren rola *A escondidas* filmean, egun bi barru Espainiatik kanporatuko dutela jakinarazi dioten nerabearena. Germán Alcarazuk

egiten du Rafaren papera, 14 urteko beste mutilarena. Euren bizitzetako une zail batean eza-gutuko eta maitatuko dute elkar, eta lagunduko diote elkarri.

Filmaren *A escondidas* izenburuak iradokitzen duen bezala, film luze honeguz sarritan ezkutuan gordetzen diren errealitateei argi egitea izan dela euren asmoa adierazi dute sortzaileek: nerabeek emigrazioa eta homosexualitatea zelan bizi duten agertzea.

## 'Il Marchese' filmak irabazi du 24 Ordu Digitalean

### > ZINEMA

Elorrioko Arriola antzokiak antolatzen duen 24 Ordu Digitalean lehiaketak eman du IX. edizioko uzta. Hamabost taldek sorturiko beste horrenbeste film labur jaso dituzte aurtengo lehiaketan; urriaren 31ko 17:00etatik azaroaren 1eko 17:00etara, 24 orduan, pentsatu eta sortutakoak denak.

*Nortasuna* gaiaren inguruan egin behar izan dituzte filmak, eguzkia erakutsi behar izan dute filmen partereren batean, eta baita "bakoitzari berea" esamoldea ere.

Caravana taldearen *Il Marchese* lanari eman dio epaimahaiak 24 Ordu Digitalean lehiaketako 700 euroko lehengo saria. Maritalavista taldearen *Datsegit* eta Atabalak taldearen *Pausuak* film laburrak izan dira finalistak, eta 500 euroko saria jaso dute.

Publikoaren saria, aldiz, Elorriwood taldearen *Mcfly* lanak jaso du. Azaroaren 1ean Arriolan erakutsi zituzten film guztiak, eta Interneten ere ikusgai daude.

## Hassan Echairrek 'Horizon Plombe' erakusketa dakar Zornotzara

### > ARTEA

Dassan Echair (Rommanin, Maroko, 1964) artistaren lanagaz erakusketa zabalduko dute Zornotzako Zelaieta zentroan, azaroaren 10ean. Sete Sois Sete Luas jaialdiak eta Zornotzako Udalak antolatu dute artista marokoarraren margolan eta instalazioen erakusketa.

Azaroaren 28ra arte egongo da Echairren lana ikusgai Zornotzan. Margolanak eta instalazioak biltzen dituen erakusketa da *Horizon Plombe* izeneko, eta denborari, gorputzari eta gizakiari buruzko gogoetak islatzen ditu Hassan Echairrek bere artelanetan.

### Tailerra artistagaz

Erakusketa zabalduko duen egunean, azaroaren 10ean, ikatzagaz margotzeko teknikari buruzko ikastaroa emango du Hassan Echairrek Zornotzan. Izan ere, bere artelanak munduko museorik ezagunenetan erakustez gainera, Tetuango Arte Ederretako Institutu Nazionalean margogintza irakas-ten du Echairrek.

## Kulturen arteko antzerki tailerra abiatuko dute gazteentzat

### > ANTZERKIA

16 eta 30 urte arteko zuzenduriko antzerki tailerra ipiniko du martxan Durangoko Udaleko Inmigrazio Sailak. Gazte etorkinak eta bertan jaiotakoak antzerkiaren bueltan elkartzea eta euren arteko hartu-eman bultzatzea dira ekimenaren helburuak. Kulturen arteko ezagutza bultzatzeaz gainera, antzerki trebetasunak zein teknikak ezagutu eta ikasiko dituzte gazteek. Besteak beste, sortzeko eta komunikatzeko ahalmena ere garatuko dute partaideek.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, ikasturte honetan landutako antzezlan taularatu dute parte-hartzaileek, ikasturte amaieran. Durangon eskainiko dute lehenengo obra-aren estreinaldia.

Azaroaren 21ean hasi, eta barikuro elkartuko dira gazteak, 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago jaso edo izena eman gura duenak azaroaren 17ra arte dauka aukera. Inmigrazio Sailean (944 657 094) jaso daiteke informazioa.

## > KRONIKA > KANTUAREN KANTOIA 2014

### > ARITZ MALDONADO

Azken urteetan jendarteratzen dabil emakumeei agertokietan dagokien protagonismoa eman behar zaiela. Espazio hori, baina, eskatu ez ezik, hartzen ere badabilta. Hori horrela, seigarren Kantuaren Kantoiko gonbidatuak emakumezkoak dira, nagusiki.

Gitarra lagun, ofizioa erakutsi du Kasernarat taldeko Eneritz 'Furyak', baita ahots jario itzela ere

Kasernarat hirukoteko Eneritz *Furya* izan da Jonan Hernandezek gidaturiko berbaldi musikatuetatik igaro den lehena. Bien arteko solasaldiak goxatu digu eguaztena. Gitarra lagun, ofizioa erakutsi du *Furyak*, baita ahots jario itzela ere. Abestiak, ostera, laburrak: "Horrelakoak irteten zaizkit". Etiketetan ez jaustea errazten die horrek. "Akustikoak ez du zertan lo egiteko izan; gu akustiko-kinkiak gara".

Kantuak sortzea ez ezik, idaztea ere gustuko du irundarrak. Apollinaire filosofo

## Kasernarat: Gerrako oasi txikia

Irungo Kasernarat taldeko Eneritz 'Furya'-k abiatu du aurtengo zikloa



frantziarraren testuetan egin zuen *Furyak kaserna* hitzarekin topo, Joseba Sarrionandia tarteko. "Kaserna hitzak beti izan du konnotazio txarra gurean, zergatik ez buelta eman horri?". Antza, gudan zeuden soldaduentzat bake guneak ziren kuartelak.

Irundarra izanik, saihestezina Moskuko harrobiari buruzko galdera. "Mugaldeko haizearen eragina-edo".

Eta jarraian Kuraia taldearen *Antigona* jotzeari (edo "izorrazteari", gaztearen berbetan) ekin dio.

Hau izan da Kantuaren Kantoia seigarren edizioaren estreinuak emandakoa. Kasernarat, bere osotasunean, Plateruenera itzuliko da hil amaieran, eta, zorte pixka bategaz, *Okerreko bidetik* lan berria besapean dutela.

Kasernarat, bere osotasunean, hil amaieran itzuliko da Plateruenera

Kokein taldeko Zalao Urainek hartuko du *Furyaren* Kantuaren Kantoiko lekukoa: azaroaren 12rako gonbidatu dute.



**MARKA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETA**  
ASEGURU - ETZE GUSTEAN LAN EGITEAN BIKI - ALDA ORIGINALAK

ZERGATIK UKO EGIN CITROËN ESPERIENTZIARI?

# NEGU HONETARAKO ESKAINTZA BEREZIA

# %80 KO DESKONTUA 2. PNEUMATIKOAN


RENAULT | CITROËN | SEAT | SKODA | KIA | HONDA | SUZUKI | MITSUBISHI | SUBARU



**GAINERA:**



**2 EDO 4 PNEUMATIKO ALDATZEAREN**  
LANTZE BIKIA  
LIK. 50A UKO-AN  
\*Guztira 100€



**20€** TERTZA NEGU BIKI ANTI MALKO MICHELIN BIKIARI

**40€** TERTZA NEGU BIKI ANTI MALKO MICHELIN BIKIARI

\*Ikus geroztik. Eraberraren arabera. Eraberraren arabera. Eraberraren arabera.



**DDAKO AZTERKETA DINARRIZKO**  
12 SEGURTASUN OSAGAIETAN



**%30** EKO DESKONTUA BANAKETA UHAL KIT EAN TENDOSILAK, TENDODAKAK, BATERA, ERABERRITZEAK, BATERA ERABERRITZEAK, BATERA ERABERRITZEAK



**IAT ALIHKEKO AZTERKETA BEREZIA DUN WAIK, ETX. ALI CAROLUS HON GARAJETAN DUN**

**%10** EKO DESKONTURIKIN EKILAN EAN

2014/12/15 - 2014/12/31

CRÉDIT FINANCIER



**CITROËN**

**TABIRA AUTOMOCIÓN, S.A. CITROËN ETXERKO ZERBITZU OTZALA**

Paradurata 1 Industrialdea - 48215 IURKETA - Tel.: 946 811 108 - [www.citroen.com](http://www.citroen.com) - <http://www.citroen.com>



**Kirola**

Geu Be elkartekoak, areto futboleko taldea.



Escor Gaztedi Rugby Taldeko gizarteratze taldea.

## Kirolean ere martxan daude gizarteratzea lantzen duten esperientzia berriak

Gaztedi errugbi klubeko gizarteratze taldea Elorriora etorriko da bihar; Geu Bek areto futboleko liga hasiko du

**> GIZARTERATZEA** M. Onaindia Beste edozeinek bezala jokatzeko. Hori da gizarteratzea lantzen duten kirol taldeek sustatu gura dutena. Bihar, Gasteizko Escor Gaztedi Rugby Taldeko gizarteratze taldea Elorriora etorriko da, bere esperientziari buruz jardutera. Eta Geu Beko areto futbol taldeak liga hasiko du asteburu honetan bertan.

Elorrioko errugbi taldeak gonbidatuta etorriko dira Gaz-

tedikoak. 10:30ean hasiko da jardunaldia, eta bi jarduera egingo dituzte. Batetik, Gaztedi-koek eta animatzen diren herri-tarrek entrenamendu antzeko bat egingo dute, jolasen bidez eta arauak aplikatzen. Bestetik, Elorrioko eta Durangoko taldeetako hainbat gaztek partidua jokatu dute. Elorrioko taldeko Dani Palaciosen arabera, euren taldearen eta federazioaren helburua errugbi mota honetan in-

teresatuta daudenei aukera bat eskaintzea da.

Gaztedi taldeko gizarteratze taldea duela urte bi jaiotzen, Arabako Downen sindromearen elkartearekin sinatutako hitzarmen batez. Elkarteko pedagogoa eta Gaztediko jokalaria den David Izquierdo izan zen sustatzailea: "Elkartean lantzen ditugun balioak Gaztedik lortu gura dituen helburuekin bat datozela ikusi nuen". Downen sindromea

duten lagunek eta senior mailako mutil eta neskek osatzen dute taldea, eta disfrutatzea da euren asmoa. Sakoneko helburua, aldiz, Downen sindromea dutenen autonomia garatzea eta, balio eta jarduera sozialak sustatzea da. Elkarrengandik ikasten dutela eta kluba aberastu egin dela azpimarratu du Izquierdok.

### Areto futboleko

Geu Bek Areto Futbol Egokitu-

ko III. Ligan parte hartuko du. Athletic Club Fundazioak eta Kirol Egokituaren Euskal Federazioak babesten dute txapelketa, eta hamalau taldek parte hartzen dute, hiru mailatan banatuta. Geu Bek hamaika laguneko talde bana dauzka Lehen eta Hirugarren mailatan. Ligaren lehenengo edizioan txapelkun izan ziren Durangaldekoak.

Geu Beko Jose Alfarok adierazi du normalizaziorako ibilbidea jorratzen dela txapelketagaz. Talde federatu legez jokatzeko eta entrenatzen dute, mediku analisi eta guzti, beste edozeinek bezala: "Gazteak protagonista bihurtzen dira, eta oso harro sentitzen dira euren lagun eta seniden aurrean".

## Aitor Elordik Bizkaiko Txapelketa irabazita ekin dio denboraldiari

Orain binakakoaren bila dabil, Gorka Otaduygaz bikotea osatuta

**> PILOTA** Joseba Derteano Iaz hainbat txapel irabazi zituzten Iurretako Olaburu pilota eskolako pilotariak, eta hasi berri duten denboraldia ere eman korra izango dela dirudi. Aitor Elordi mallabiarrak 22 urtez

azpiko Bizkaiko Txapelketa irabazi du, finalean Koldo Ortiz mungiarra menderatuta: 22-7. Iaz ere bera izan zen txapelketa, baina gazte mailan. Orain 22 urtez azpiko Bizkaiko binakako txapelaren bila dabil, Gorka aur-

teOtaduy berriztarragaz. Orain arte ligaxkako lau partidua irabazi dituzte, eta txapela lortzeko hautagai sendoenetakoak dira. Finalera heltzen badira, ziurtatuta izango dute Euskadiko Txapelketan parte hartzea.



Iurretako pilota elkartean dabilzan pilotarien aurtengo familia argazkia.

## Fernandekin harremana hautsi du Bizkaia-Durangok

Ustezko dopin kasu bategatik hartu dute erabakia

**> TXIRRINDULARITZA** J.D. Azken egunetan komunikabide batzuek Maria Fernandes txirrindulari brasildarraren ustezko dopin kasuaren berri eman dute. Aurtengo denboraldian Fernandes Bizkaia-Durangoko taldeagaz aritu izan da lasterketa batzuetan. Bizkaia-Durangoko taldeak prentsa ohar batean jakinarazi duenez, "alde bien artean izan den harremana berehala iraungitzea" erabaki dute taldeko arduradunek.

Bizkaia-Durangok ez du gaiaren gaineko inolako jakinarazpenik jaso ezelango kirol federazio edo bestelako kirol agintariren partetik, "baina Fernandes ez da kapaz izan argitaratutako albisteen egiazkotasun eza taldearen aurrean

frogatzeko". Horregatik hartu dute hartu-emanak hausteko erabakia.

Jakinazpen horregaz batera, dopinaren kontrako erabateko atxikimendua dutela adierazi dute: "Bizkaia-Durangok ez du onartzen dopinagaz erlazionatuta dagoen inor taldean; taldeko partaide guztiek kirol jarduera-araudia eta joko garbiaren balioak errespetatu ditzatela exijitzen dugu".

"Fernandes ez da kapaz izan argitaratutako albisteen egiazkotasun eza frogatzeko"



# Espainiako Koparako puntuagarria den ziklo-kros proba jokatuko dute domekan, Elorrion

Gizonetan Aitor Hernández eta Felipe Orts dira favoritoak; emakumeetan Aida Nuño eta Lucía González



Aitor Hernandezek Muskizko eta Laudioko probak irabazi zituen joan zen asteburuan. Espainiako Txirrindularitza Federazioa.

**> ZIKLO-KROSA J. Derteano**  
Datozen hiru asteburuetan Durangaldea ziklo-krosaren erdigune bihurtuko da. Domekan, Espainiako Koparako puntuagarria den lasterketa lehiatuko dute Elorrion; azaroaren 16an eta 23an, berriz, Zornotzan eta Berrizen izango dira ziklo kros probak, hurrenez hurren.

Elorriokoa Espainiako Kopako laugarren proba da, eta Eloorrioko txirrindulari elkarteak antolatuko du. Urtero legez, San Jose inguruko landetan atonduko dute 2,9 kilometroko luzera

duen zirkuituko zatirik luzeena. Euria egiten badu, zirkuitua ohikoa baino gogorragoa izango da, eta parte-hartzaileen jarduna baldintzatu dezake.

Lasterketa maila guztietan lehiatuko dute: elitean, 23 urtez azpikoan, kadeteetan, juniorretan eta master mailetan. Gizonetan Aitor Hernández ermuarra da irabazteko favorito nagusia, Espainiako Kopako lehenengo hiru lasterketak irabazi dituelako; joan zen asteburuan Muskizko eta Laudioko probetan nagusitu zen. Baina ez

da favorito bakarria. Kevin Suárez kantabriarra eta Felipe Orts valentziarra ere maila onean dabilta. Ortsek estu hartu zuen Hernández Muskizko proban. Javier Ruiz de Larrinaga ere ezin daiteke baztertu favoritoen zerrendatik. 23 urtez azpikoan Orts eta Suárez dira hautagai nagusiak. Maila horretan, Muskiz eta Laudioko probak irabazi ostean, valentziarra sasoi hobean dagoela ematen du.

Emakumeetan asturiarren artean egon daiteke garaipena: Aida Nuño izan zen garaile Mus-

kizen, eta bera da gaur egungo txapelduna. Guztira, hiru bider irabazi du Espainiako Kopa. Lucía Gonzálezek 2013an irabazi zuen Espainiako Kopa; orduko hartan Nuño bigarren geratu zen.

Kadete mailan Iurretako CAF Transport Engineering taldeko Saioa Gil da favorito nagusia. Orain arteko ziklo-kros proba guztiak nagusitasunez irabazi ditu.

## ORDUTEGIA

- **09:00** Master 40, 50 eta 60 mailak.
- **10:00** Master 30 maila.
- **11:00** Kadeteak mutiletan eta nesketan.
- **11:45-12:10** Maila horietako sari banaketak.
- **12:15** Junior neska eta mutiletan; emakumeetan elite eta 23 urtez azpikoa.
- **13:15** Elite eta 23 urtez azpikoak gizonetan, eta seniorrak.

## ADITUAREN TXOKOA



**Eneritz Iturriaga**

Txirrindulari ohia

**Tratu eta eskubide berak**  
Azkenean, lehenengo aldiz, neskek ados jarri dira, eta guztiari egin diote aurre! Bai, heldu da nesken arteko adostasuna, eta denen artean aldarrikatu dituzte euren eskubideak, eta neska-mutilen arteko berdintasuna eskatu dute.

Orain dela hamaika urte jarri ginen emakumeak lehenengo aldiz Frantziako Tourreko antolatzaileen kontra, euren eskaintzen zizkiguten ostatuaren aurka, nolabait deitzearen, protestatzeko, baina orduko liderrak bizkarrara eman zigun, eta ezin izan genuen ezer egin, eta desparrekotasun guztiei eutsi egin behar izan genien urteak joan eta urteak etorri.

Kirolean beti izan da desberdinkeria hori, eta askotan guk eduki dugu errua, denok ados ez egotearen; baina oraingoan bai! Kristoren oihartzuna izan du, gainera, bai sare sozialetan, bai prentsan. Lasterketa aurretik egindako manifestazioak eduki duen eragina izan da garrantzitsua, eta nesken batera agertu diren mutilen bultzada ere bai.

Ez gara kexatzen kexatzearen, arrazoiak ere baditugu: sari txikiagoak (ia 2.000 euroko aldea), ez dago kategoria ofizialik, beti mutilekin irten behar, Estatuko selekzioak ez ditu Munduko Txapelketara eramaten, prentsan nesken sailkapenak gutxitan agertzen dira... Eta, horrela, bihar arte jarraitu dezaket. Behingoz pozik nago, kasu egin digutelako, eta hasi bakarrik egin gara, ez izan zalantzarik. Geuk ere mutilen moduan entrenatzen dugulako, sufritzen dugulako, prestatzen garelako... Gure mailan izan arren, ekina berbera da!

## Ziklo-krosean ere berdintasunaren bila

Emakumezko txirrindulariek aldarrikapenak hasi dituzte ziklo-krosean ere, berdintasuna eskatzeko; gizonak eta emakumeak jasotzen duten tratua ez dela bera sentitzen dute. Ez sarrietan dagoen aldeagatik bakarrik; oro har, "errespetu falta jasaten dugu, eta soberan dagoen kategoria bat osatzen dugula sentitzen dugu", dio Naia Alzola txirrindulariak. Aldarrikapen horietara emakume, gizon, txirrindulari zein txirrindularitza

zaleak batzea gura dute. Laudioko proban *Txirrindularitza ere berdintasuna* zioen pankarta baten atzean batu ziren, eta aldarrikapenari sostengua eman zieten gizonetako txirrindulari askok ere. Elorrion ere erakutsiko dute pankarta hori.

Era berean, sinadura bilketa hasi dute. Espainiako federazioak abenduan egiten duen urteko ohiko batzarrean aurkeztu gura dituzte. Elorrion karpa bat egongo da sinadurak batzeko.



Joan zen asteburuan, txirrindulariek berdintasuna eskatu zuten Laudioan.



**Ermuan, Euskal Birusa Elkarteak antolatua,**

# XXV. SAN MARTIN AZOKA

Baserriko produktuak, abereen erakusketa, artisauak, Luhartzen erromeria, baserritar jantzi lehiaketa, ehun buruko artaldearen jaitsiera Errekaldetik, erakusketak, txerriaren porra, euskal dantzak, gaiteroak, umeentzako jolasak, 'astobusa', txosna, taloak, saiheski errea...

Joaldunak, Idi parek gurdiaekin kalejiran eta herri kirolak.

Azaroaren 8an

larunbata





**> TRIATLOIA** Joseba Derteano Distantzia Luzeko Espainiako Triatloi Txapelketa irabazi du Gurutze Frades iurretarrak (Mugarra Triatloi Taldea) bere ibilbidean laugarren bider. Gainera, lau txapelak segidan lortu ditu: 2011n Orihuelan, 2012an eta 2013an Calellan eta joan zen asteburuan Lanzaroten.

Distantzia luzean indartsuena zela erakutsi zuen beste behin iurretarrak. Baina bere garaipena ez zuen indarrean bakarrik oinarritu; buruz jokatu zuen. Igerian eta bizikletan egin beharreko tarteetan –haizeak aurretik jotzen zuen– ez zen onenen taldean ibili, baina ez zuen etsi; zerumugan izan zituen une oro arerioak, eta korrika egiteko tartea heldu zenean, erakustaldia eskaini zuen.

Igeriketako hiru kilometroetan Esther Rodríguez eta Dolca Ollé izan ziren azkarrenak. Bizikletako 120 kilometroetan borroka estua mantendu zuten Ollé, Rodríguez, Nicole Woysch eta Judith Corachán-ek. Frades ez zegoen aurrenekoen taldean oraindik.

Korrikako 30 kilometroetan goi mailan aritu zen iurretarra. Hamar kilometroren faltan, lehenengo jarri zen, eta bakarrik egin zuen helmugara arteko bidea: 7.19.15. Dolcá Ollék (7.29.28) eta Esther Rodríguezek

## Fradesek laugarren aldiz irabazi du Espainiako Txapelketa triatloi luzean

Distantzia luzeko azkenengo lau txapelketak Gurutze Fradesek irabazi ditu



Gurutze Frades erdian, Dolcá Ollé eta Esther Rodríguezegaz. Espainiako Triatloi Federazioa.

(7.30.18) osatu zuten podiuma. Gurutze Fradesek iaizko titulua berritu du, eta bere ibilbidean laugarren bider izan da distantzia luzeko triatloien Espainiako txapeladun. Hunkituta dago:

“Oraindik sinetsi ezinik nabil. Garaipen hau lortzea asko kostatu zait, eta ez dakizue zer emozionatuta nagoen. Denboraldi gogorra izan da, lasterketa hau ere bai, eta ez nengoen seguru.

Eskerririk asko abentura honen parte osatzen duzuen guztioi”, adierazi du sare sozialetan.

Gizonetan Gustavo Rodríguez galiziarra izan zen txapelketako irabazlea.

## Zornotza eta Elorrion mendi asteak antolatu dituzte

Egoitz Aragon, Juan Vallejo eta Juanjo San Sebastián izango dira bertan, besteak beste

### > MENDIA

Zornotza Mendi Taldeak eta Elorrioko Erdella Mendi Taldeak hainbat hitzaldi antolatu dituzte datorren asterako.

Zornotzari dagokionez, astelehenean, 19:00etan, Egoitz Aragon korrikalari zornotzarrak Tort De Geants Alpeetako ultratrailean bitzako abenturak izango ditu berba, orduan aterako argazkiek lagunduta. 88 orduz ibili zen mendian, 330 kilometro egiteko, eta hamaikagarren amaitu zuen.

Martitzenean, 19:00etan, Mikel Lauzirika piraguiak Groenlandian piraguan ibili zeneko abenturak gogoratuko ditu. Azkenik, eguaztenean, 19:00etan, Juanjo San Sebastián mendigoizaleak bisitatuko du Zornotza *Tras las huellas de Shackleton* espedizioaren berri emateko. 1914an Ernest Shackleton esploratzaileak Hego Antilletako artxipelagoak (Hego Atlantikoan) bitzako odisearen bideak errepikatu zituzten espedizioan.

Hitzaldiez gainera, mendi taldeak abiatutako argazki lehiaketako argazkiak ikusgai daude azaroaren 30era arte Ur-tza, Far Far, Saltsa eta Ontza tabernetan.

Elorrion, astelehenean, 19:30ean, Dolomitetara (Italiako Alpeak) egindako bidaiak izango dituzte berba Erdellako kideek Iturri kultur etxean. Martitzenean, 19:30ean, *Paiju, los pilares de Baltoro* ikus-entzunezkoa eskainiko dute Arriolan, eta bertan izango da Juan Vallejo mendigoizalea.

Eguaztenean, Ana Ruiz eta Idoia Rubial eskalatzaile eta mendizaleak gaztetxean izango dira 19:30etik aurrera; *Aztarnak* izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko dute.

Eguenean, Juanjo San Sebastianen txanda izango da, 19:30ean, Arriolan, eta *Tras las huellas de Shackleton* espedizioa izango du berba. Azkenik, barikuan, 19:30ean, Jon Ander Beristainek Marokoko Tondra Eztarriko eskalada saioei buruz jardungo du.

## Urienek baditu 3 Formularen jarraitzeko arrazoiak

Europako 3 Formulako Openeko azken lasterketa lehiatu ahal izan du Italiako DAV Racing taldeagaz



Igor Urien DAV Racing Team taldeko autoagaz.

### > AUTO LASTERKETA

Europako 3 Formula Openari aho zapore onagaz esan dio agur Igor Urien 19 urteko gidari abadiñarrak. Openeko lehen lasterketa Emilio de Villotaren taldeagaz lehiatu ostean, hurrengoetan ezin izan zuen parte hartu aurrekontu faltagatik. DAV Racing Team taldeak Montmelóko azken lasterketan eurekin lehiatzeko interesa erakutsi, eta eskaintza onartu zuen.

Zapatuko lasterketa ezin izan zuen amaitu arazo mekani-

koengatik. Domekan, atzetik irten arren, irteeran lau postu aurreratatu zituen, eta une batean hamaikagarren kokatu zen. Azkenean, hamabosgarren amaitu zuen, eta Italiako eskuderiak denboraldi osoan lortutako puntuen erdiak batu zituen. Orain beste txapelketa bat hasiko du, bulegoetako txapelketa, datorren denboraldirako aurrekontua osatu guran. F-3an jarraitzea da lehentasuna, nahiz eta aurten beste eskaintza batzuk ere izan dituen.

### AGENDA

#### > FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

**Durango Kulturala - Baskonia**

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

##### OHOREZKO MAILA

**Iurretako - Gurutzeta**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

**Elorrio - Loiu**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

##### MAILA GORENA

**Abadiño - Ortuella**

· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.

**Zaldia - Baskonia B**

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

##### LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

**Berriz - Fruiz**

· Zapatuan, 17:30ean, Berrizburun.

##### LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

**Iurretako - Adiskideak**

· Domekan, 16:00etan, Larrakozelaian.

##### BIGARREN ERREGIONALA

**Amorebieta B - Lezama**

· Zapatuan, 15:00etan, Txolonen.

#### > ARETO FUTBOLA

##### HIRUGARREN MAILA

**Sasikoa - Egintza**

· Domekan, 12:15ean, Durangon.

##### EUSKAL LIGA

**Elorrioko Buskantza - Bakio**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

**Sapuberri - Eskoriatza**

· Zapatuan, 18:15ean, Durangon.

##### MAILA GORENA

**Sasikoa B - Sestao**

· Zapatuan, 19:55ean, Durangon.

##### LEHEN ERREGIONALA

**Presion Break B - Aurrera Beti**

· Zapatuan, 16:45ean, Berrizen.

**Elorri Txiki - Usansolo**

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrian.

**Mallabia B - Hegalariak**

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarren.

##### EMAKUMEEN LIGA

**Elorrioko Buskantza - Iraultzaileak**

· Domekan, 12:15ean, Elorrian.

**Sasikoa - Bilbo B**

· Zapatuan, 17:00etan, Durangon.

#### > SASKIBALOA

##### ZILARREZKO ADECCO LIGA

**Zornotza - Bartzelona**

· Domekan, 19:00etan, Larrean.

##### LEHEN MAILA (gizonak)

**Tabirako Baqué - Fundacion 5+11**

· Zapatuan, 19:00etan, Tabiran.

##### LEHEN MAILA (emakumeak)

**Tabirako Baqué - La Salle**

· Domekan, 12:00etan, Landakon

#### > ESKUBALOA

##### EUSKADIKO LIGA

**Ibaizabal - Muskiz**

· Domekan, 11:00etan, Landakon.



## Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD**  
Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

### ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500n hileko.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO

- MONTEVIDEO: Apartamentua. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela. Erdi berria.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. 1 eta 2 logelakoak. Trastelkuarekin. 140.000n-tik aurrera.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

#### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

#### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

#### ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

#### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

#### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

#### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

#### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

#### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

#### EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

#### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

#### DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

#### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

#### DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatzeke.

#### BERRIZ

- MURGOITIO kokatuta dagoen baserria salgai. Nekazalturismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politak.

- EITUA: 5 hektarea dituen baserria. Familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

#### ETXEBARRIA

- Iturrieta. 5 hektareako baserria.

#### URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

### TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekoak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO eta abar.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2-4 logela eta komun 2.
- ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komuna.
- ARKOTXA: 4 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Trastelekua.
- ARTEKALEA: Logela, sukalde-jangela eta komuna (logela 2 egiteko aukera).
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Trastelekua.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela, komun 2 eta lursaila.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua. Ganbara.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.
- OLLERIA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Jantzia. 2 kotxerentzako garaje itxia eta trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

#### ELORRIO

- Etxea salgai, 2.975 m2-ko lursailarekin.

#### ABADIÑO

- ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, despentsa eta bainugela. Balkoia.
- ARLOZABAL: Logela 2, egongela, sukaldea eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- FERIALEKU: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

#### MATIENA

- LAUBIDETA: 3 logela, egongela, sukaldea eta komun 2. Esekitoriarekin.
- SOLAGUREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- SOLAGUREN: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua.

#### IURRETA

- ARRIANDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

**Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, bestek beste.**

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO



- SAN FAUSTO: Logela 2, egongela, sukalde jantzia eta komuna. **85.000n**. Prezio negoziagarria.

#### DURANGO



- ARAMOTZ: Bizitzin sartzeko moduan. Logela 2, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. **98.000n**. Prezio negoziagarria.

#### DURANGO



- FRAI JUAN ZUMARRAGA. Berriztutako apartamentua. Logela, egongela, sukaldea eta komuna. **115.000n**.

#### DURANGO



- SASIKOA: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Igogailua. **160.000n**. Prezio negoziagarria.

#### DURANGO



- ARRILUZEA: Logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Ganbara. **160.000n**.

#### DURANGO



- FRAI JUAN ZUMARRAGA: Logela 2, egongela, sukaldea, despentsa eta komuna. **178.000n**.

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

### ETXEBIZITZAK SALGAI:

- MALLABIA: Baserria. Alokairuan.
- GARAI: Baserria. Alokairuan. 950n.
- ABADIÑO. Zelaieta: Alokairuan. 550n.
- ABADIÑO: Estreinatzeke. Alokairuan. 600n.
- IBAZABAL: Apartamentua. Erdi berria. Trastelekua eta garajea. Aukera.
- ABADIÑO. Teresa Lariz: Erdi berria. Logela 2, komun 2, egongela, sukaldea eta esekitokia. Trastelekua eta garajea. 159.600n.
- IURRETA: 3 logela, egongela eta komuna. 93.000n.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komun 2, egongela, sukaldea eta esekitokia. Terraza. Trastelekua eta garajea. 278.000n.
- MONAGOTORRE: 3 logela eta komuna. Terraza. Baserriloko sukaldea. Aukera.
- TABIRA: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, egongela eta terraza. Garaje pribatua. Eguzkitsua. 176.000n.
- ZALDIBAR: Berriak. Garajea eta trastelekua. 144.000n.
- ANDRA MARIA: 140 m2. 4 logela, komun 2 eta egongela. Balkoia. Eguzkitsua. 155.000n.
- ZALDIBAR: Erdi berria. Logela 2 eta komunak. Igogailua. Trastelekua. 92.000n.
- BERRIZ: Logela 2, komuna eta egongela. Terraza 2. Trastelekua eta garajea. 160.000n.
- ELORRIO. Nizeto Urkizu: 3 logela, egongela eta sukaldea. Trastelekua. 140.000n.
- IZURZA: Logela 2, komuna eta egongela. Ganbara. Berriztua. 96.000n.
- BERRIZ: Duplexa. Erdi berria. Logela, 3 komun eta egongela. Terraza. Garajea.
- ARAMOTZ: 85 m2. 4 logela, egongela eta sukaldea. Eguzkitsua. 120.000n.
- DURANGO: Txaleta. 330 m2. Lorategiarekin. 550.000n.
- F.J. ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Terraza. Igogailua. 187.000n.
- ARTEKALEA: Apartamentua. Erdi berria. 136.000n.
- TXIBITENA. 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea. Terraza. Ganbara eta garaje itxia. 255.000n.
- MATIENA: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Berriztua. 127.000n.
- ASK. ETORBIDEA: 3 logela, komun 2, egongela handia eta sukaldea. Balkoia. Garajea. 252.000n.
- S. ROKE: 3 logela. Eguzkitsua. 200.000n.
- MARTXOAREN 8KO KALEA: 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta esekitokia. Terraza. Ganbara eta garajea. 236.000n.
- IURRETA: Logela 2, komuna eta egongela. Terraza. Guztiz berriztua. 110.000n.
- IURRETA. Erdialdean: Lehen solairua. 3 logela eta komuna. Bizitzin sartzeko moduan. 93.000n.
- LANDAKO: Apartamentua. Trastelekua eta garajea. 140.000n.
- DURANGO. Ezki: Duplexa. Logela 2. Bizitzin sartzeko moduan. Lorategiarekin. 185.000n.
- ASTEPE: 3 logela, komun 2 eta sukaldea esekitoriarekin. Terrazak. Trastelekua eta garajea.
- MIKELDI: 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Terraza 2. Berogailua. Igogailua. Ganbara. 186.000n.
- ARTEKALEA: 85 m2. Logela 2 eta komuna. Berriztua. 140.000n.
- FKO. IBARRA: 12 urteko etxebizitza. Logela 2, komuna, egongela handia eta sukaldea. Ganbara eta garajea. 235.000n.

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)







# AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Azaroaren 9an, 19:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean

## Distancia siete minutos

Justiziaren, zorientasunaren eta patuaren inguruko lana da 'Distancia siete minutos'. Pako Merinok eta Diego Lorcak osatzen dute Titzina antzerki taldea, eta eurek biek landutako testua du oinarri antzezlanak. Gainera, Merinok eta Lorcak dihardute aktore eta zuzendari lanetan. Gurasoenera itzultzea behartuta sentitzean, Félix epaile gazteak aitagaz daukan elkarbizitza da antzezlanak lantzen duen istorioetako bat.

### Antzerkia

:: BERRIZ

AZAROAREN 14an

18:00etan, Dot, kultur etxean.

:: DURANGO

AZAROAREN 9an

19:00etan, 'Distancia siete minutos', San Agustinen.

:: ZORNOTZA

AZAROAREN 7an

21:00etan, 'NOT (never on time)', Zornotza Aretoan.

### Musika

:: BERRIZ

AZAROAREN 8an

20:00etan, Elkartasun kontzertua Kultur Etxean.

:: DURANGO

AZAROAREN 8an

20:00etan, Trivium Klezmer, Kurutze Santu Museoa.

22:30ean, Niña Coyote eta Chico Tornado + Bakelike + Viva Bazooka + Killerkume, Plateruenean.

AZAROAREN 12an

20:00etan, Kantuaren Kantoia: Kokein. Plateruenean.

:: ELORRIO

AZAROAREN 13an

21:30ean, Joseba B. Lenoir eta Felix Buff, Arriolan.

AZAROAREN 14an

22:30ean, Juan Ortiz trio, Arriolan.

AZAROAREN 15ean

22:30ean, Tino Gonzales, Leburn Maddox, Julio Lobos & Antonio Serrano, Arriolan.

:: ZORNOTZA

AZAROAREN 13an

20:30ean, Gabacho Maro connection, Zelaieta zentroan.

### Bakarrizketa

:: DURANGO

AZAROAREN 7an

22:30ean, bertako bakarrizketak, Plateruenean.

:: ZALDIBAR

AZAROAREN 8an

18:30ean, Erdaldun berrien kluba, liburutegi zaharrea.

### Mahai ingurua

:: OTXANDIO

AZAROAREN 14an

19:00etan, 'Erabakitze eskubidea, elkarbizitza normalizatu baterako printzipio demokratikoa', Iñaki Zarragoa, Gema Zabaleta eta Ibon Arbulu, Mainondoko gimnasioan.

### Zinema

:: BERRIZ

AZAROAREN 7an (18:00) eta 9an (17:00)

'Guardian de la galaxia', Kultur Etxean.

AZAROAREN 12an

20:00etan, 'Hannah Arendt', kultur etxean.

AZAROAREN 14an (22:00) eta 16an (19:00)

'Mil veces buenas noches' kultur etxean.

:: ELORRIO

AZAROAREN 12an

19:30ean, 'Five days to dance' Iturri kultur etxean.

:: OTXANDIO

AZAROAREN 7an

19:00etan, 'Mariposas en el hierro' kultur etxean.

### Kontalaria

:: IURRETA

AZAROAREN 7an

17:30ean (3-4 urte), 18:00etan (Setik gora), Dorleta Kortazarren 'Saharako ipuinak', Herri Bibliotekan.

### Tailerra

:: DURANGO

AZAROAREN 17ra arte

Udaleko Inmigratio Sailak 16 eta 30 urte arteko gazteei zuzendurik antolatutako duen kulturarteko antzerki tailerrean izena emateko epea. Azaroaren 21ean hasiko da tailerra.

:: ELORRIO

URRIAN ETA AZAROAN

Makillaje eta karakterizazio tailerra; akrobazia eta zirku tailerra; eta ahotsarekin jolasteko tailerra. Izen ematea, Arriolan.

### Lehiaketa

:: DURANGALDEA

AZAROAREN 22ra arte

Juan Ramón de Iturriza mikroistorio lehiaketa. Lehiaketaren oinarriak: [www.gerediaga.com](http://www.gerediaga.com).

:: ELORRIO

AZAROAREN 15ean

09:00etatik 10:00etara, XXV. Errebonbilo Margo Lehiaketan parte hartzeko izen ematea, Iturri kultur etxean.

### Batzarra

:: DURANGO

Eguen guztietan

18:00etan, Al-Anon elkartearen (alkoholiko senideen elkarte) batzarrak, Landakoko kiroldegiaren beheko aldean.

### Ekitaldia

:: ERMUA

AZAROAREN 8an

25. San Martin azoka. 12:30ean, euskal dantzak, plazan, eta joaldunen kalejira. 13:00etan, herri kirolak, komentukuan. 18:00etan, Luhartzegaz erromeria

:: ZALDIBAR

AZAROAREN 8an

Zapatu laranja. 10:30ean, Santamañezarrera igoera. 14:30ean, bertso bazkaria. 18:00etan, poteoa Daltondarrekin. 22:00etan, bideo emanaldia.



:: DURANGO | ZUGAZA

### Loreak

- barikua 7: 22:00
- zapatua 8: 22:30
- domeka 9: 18:30
- astelehena 10: 18:30
- martitzena 11: 20:00

### Los Boxtrolls

- zapatua 8: 17:00
- domeka 9: 16:30

### Interstellar

- barikua 7: 19:00
- zapatua 8: 19:00
- domeka 9: 20:30

### Jersey Boys

- eguena 13: 20:30

### 2. ARETOA

#### A escondidas

- barikua 7: 19:00
- zapatua 8: 20:00
- domeka 9: 21:00
- astelehena 10: 18:30
- eguena 13: 20:00

### Loreak

- zapatua 8: 18:00

### Interstellar

- barikua 7: 21:30
- zapatua 8: 22:00
- domeka 9: 18:00
- astelehena 10: 20:30
- martitzena 11: 20:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

### Loreak

- zapatua 8: 22:30
- domeka 9: 20:00
- astelehena 10: 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

### Loreak

- zapatua 8: 19:30/22:30
- domeka 9: 20:00
- astelehena 10: 20:15

### Aviones: equipo de rescate

- zapatua 8: 17:00
- domeka 9: 17:00

### Begin again

- martitzena 11: 20:00

Azaroaren 8an, 22:30ean, Plateruenean

## Niña Coyote eta Chico Tornado

Zuzeneko lau musika emanaldi dakartzan jaialdia hartuko du Durangoko Plateruena bihar. Estatu Batuetan jo ostean ariko da, Durangon Niña Coyote eta Chico Tornado taldea. Bestalde, Niña Coyote eta Chico Tornado bezala, gitarristak eta bateria-jotzaileak osaturiko Gasteizko Viva Bazooka taldeak ere joko du biharko jaialdian. Gainera, Bakelite eta Killerkume talde bilbotarrak ere ariko dira musikazaleen gozagarri, rocka, stonnera, bluesa eta countrya eskaintzen, besteak beste.






# Denborapasak

## > ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org  
eguziteneko 14:00ak arteko epea

**1**

	2				1
	9				6 5 8
		8 6 3			
7	2		9		3
4		7 8 5			9
9		3		1	4
		2 5 8			
1	5 3				2
	7				9



> Etxeko zaparrueri Zorixonak eta urte askotarako! Bere guraso eta Larraitz arrebaren partez.



> Zorionak **Beñat**, ondo pasau eguna eta muxuak danon partez.



> Azaroaren 7an **Garazik** 3 urte bete ditu, eta **Aiurrek** 2. Zorionak bioi eta patxo potolo bana etxekoan partez!



> Zorionak **Julen**, gure etxeko bizipoza zara! Konturatu barik bigarren urtea bete dozu. Mosu potolo bat etxekoan partez!



> Zorionak zuri, zorionak beti! Zorionak **Beñati**! Uxue eta Anartz abotsak berotzen dabiz domekan abesteko!

**2**

	2	1			8
				5 4	
	7		1	3	
			6	1 4 2	
9					
1	5 2	4 8			
		6 2			
	8 3		9 6 7		
	7		8		4



> Bihar urte bete **Jare**! Zorionak eta ondo pasau etxeko guztixon partez, batez be aittitte ta amaman partez! Segi oin arte modoko irribarretsua!



> Gure poxpolinak 2 urte ingo dauz domekan. Zorionak prexiosa eta muxuek etxekoan partez!



> **Izane Buruagak** igandean 5 urte egiten ditu. Zorion pila-pila bat denon partez!



> Zorionak **Lara**! Martitzenean 5 urte beteko dituzu. Muxu handiak zure senideen partez, eta bereziki zure osabaren partez. Zorionak "LariSofi" eta ospatzera!



> Urtetxo bi egingo dauz domekan **Lierrek** ta txokolate berue hartuko dogu ospatzeko etxeko danok! Zorionak eta mosu potolo bat!



> Gelako Naroak, Iratik, Malenek, Anek, Paulek, Nahiak, Uxue A.k, Liherrek, Ibaik, eta Pellok eta kuadrilako, Irati, Garazi, Helene, Einharrek, Urkok, Lurrek, Maierrek, Peruk, Anartzek eta Mikelek be... Zorionak **Uxue**!

Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

> Zorionak **Jokin Rosas**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

## > BOTIKAK

- BARIKUA, 7** - 09:00-09:00
- **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
  - **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- ZAPATUA, 8** - 09:00-09:00
- **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
  - **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza) 09:00-13:30
  - **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
  - **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
  - **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
  - **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
  - **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
  - **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
  - **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
  - **Navarro** (Arteakalea 6 - Durango)
  - **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
  - **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
  - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- DOMEKA, 9** - 09:00-09:00
- **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
  - **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)

- 09:00-22:00
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- ASTELEHENA, 10** - 09:00-09:00
- **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- MARTITZENA, 11** - 09:00-09:00
- **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- EGUAZTENA, 12** - 09:00-09:00
- **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- EGUENA, 13** - 09:00-09:00
- **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

## > TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... **94 681 09 49**  
Osakidetza ..... **94 600 72 00**  
Ertzaintza ..... **94 466 93 00**

## > GARRAIOAK

- Euskotren ..... **902 54 32 10**  
Bizkaibus ..... **94 448 40 80**  
Pesa ..... **902 10 12 10**  
Continental Auto ..... **945 286 466**

## > TAXIAK

- Abadiño ..... **94 681 44 70**  
Matiena ..... **606 459 988**  
Durango Geltokia ..... **94 681 10 01**  
Elorrio Geltokia ..... **94 682 00 40**  
J.L. Uriarte ..... **670 402 002**  
I. Estebez ..... **670 678 273**  
M. Galeano ..... **670 409 330**  
Iurreta .....  
Taxi auzunea ..... **688 618 690**  
Berrizko auzo taxia ..... **620 022 800**

## > UDALAK

- Abadiño ..... **94 621 55 30**  
Atxondo ..... **94 682 10 09**  
Berriz ..... **94 682 45 84**  
Durango ..... **94603 00 00**  
Elorrio ..... **94 658 27 12**  
Garai ..... **94 681 63 93**  
Iurreta ..... **94 620 12 00**  
Izurtza ..... **94 681 35 48**  
Mallabia ..... **943 17 14 61**  
Mañaria ..... **94 681 89 98**  
Otxandio ..... **945 45 00 20**  
Zaldibar ..... **94 682 70 16**

## > UDALTZAINGOA

- Abadiño ..... **94 621 55 33**  
Berriz ..... **94 682 40 36**  
Durango ..... **94 603 00 00**  
Elorrio ..... **94 682 02 18**  
Iurreta ..... **94 620 08 88**

5° **15°** ZAPATUA

4° **14°** ASTELEHENA

3° **12°** DOMEKA

7° **14°** MARTITZENA

## SUDOKUEN SOLUZIOAK

4	6	2	8	5	6	7	1	9	6
7	9	6	7	3	4	1	8	5	2
8	5	1	8	2	5	1	6	4	3
6	7	8	4	3	2	9	5	1	6
3	5	9	8	7	1	8	4	2	6
4	2	1	4	2	9	6	3	5	8
5	3	2	5	1	6	8	9	4	7
1	6	9	4	6	1	2	5	4	8
6	8	3	7	8	6	4	9	3	5

**2**

5	9	4	1	3	6	8	7	2	1
6	2	8	4	7	9	3	5	1	6
1	3	9	6	4	7	8	2	5	1
7	3	1	8	7	5	2	9	4	6
4	7	4	1	7	6	3	2	5	8
9	6	9	2	5	8	7	1	3	4
3	8	3	1	9	5	4	2	6	7
2	6	9	3	6	8	7	1	5	4
8	5	6	1	7	2	4	9	3	8
3	1	7	4	3	1	7	8	2	6

**L**





# “Musikak melodia, konposizioa eta erritmoa dauzka, eta gaztagintzak ere bai”

Euskal Herriko gaztagintza ikertzera etorri da Trevor Hart gaztagilea eta musikari ohia

**> AKUILUA** Markel Onaindia  
Trevor Hart gaztagile ezaguna da Australian, eta beka bati esker European dabil ikertzen. Euskal Herrira ere etorri da, transhumantzia eta ofizio tradizionala ezagutzeko. Durangaldean, Mendiolan, Maumen eta Axpen ibili da. Athletic San Mamen ikusi, eta zaletu egin da.

**Noiz hasi zinen gazta egiten?**  
Duela zazpi urte hasi nintzen. Erronka bat gura nuen. Jazz musikaria izan naiz oso gaztetatik, eta zerbait desberdina egin gura nuen. Gaztagintza oso tradizio zaharra da, baina, aldi berean, sormen handia eskatzen duena, eta musikagaz paralelismo bat zuela ikusi nuen: musikagaz sekula ez duzu ikasketa prozesua amaitzen, eta gaztagintzagaz berdin, beti berriro ahal duzu.

**Australian gazta egitea ez da tradizio handikoa.**  
Australian dagoen jateko kultura nahiko amerikarra da. Ardietatik erabiltzen dena artilea da, ez esnea. Artile hori Britainia Handiko armadaren arropa egiteko erabili izan da. Australiako etorkinen migrazio nagusia Europa iparraldetik zetorren, eta handik, batez ere, esnea ekarri zuten, baina gazta ez.

**Zelan doa European zehar egiten zabilzan ikerketa?**  
Australiatik kanpora ikerketak egiteko diru-laguntzak ematen ditu Churchill Fellowship erakundeak. Nire proiektua *Gaztagintza tradizionalaren azterketa* deitzen da. Tokian

tokiko osagaiekin egiten den gaztagintza ikertzen nabil hila-bete bi eta erdian. Gaztagintza tradizionala galtzen dabil, eta ardura horrek bultzatu nau. Gaztagileak bisitatzeaz gainera, nire lana ere erakusten diet.

**Turkian eta Italian ere ibili zara. Zer nabarmenduko zenuke?**  
Turkian Tulum izeneko ahuntz gazta bat dago. Ahuntzaren azal barruan ontzen da, koba batean edo lurpean. Kanpotik iletsu tankera du, eta barrutik zuria da. Hogei kilokoak ere ikusi ditut! Oso itxura arraroa dauka, baina zapore oso ona. Italian, Turinen, Terra Madre deitzen den azoka batean egon naiz, etikoki ekoiztutako janaria eroaten dute bertara. Mundu osoko erakusleak egon dira, eta daukan eraginak harritu nau.

**Eta Euskal Herrian?**  
Bitxia egin zait arraza nagusi bat izatea: ardi latxa. Izan ere, Australian merina arraza daukagu bakarrik. Idiazabal prozesua eta izendapena ere interesgarria iruditu zait. Artzaintza tradizionala desagertzen dabilela ikusi dut; uda sasoiaren mendira joan, eta han gazta egiten zutenena. Nafarroan ikusi dut horrelako artzain bat. Gaztaren kultura interesatzen zait.

**Zer moduz Euskal Herrian?**  
Elkarte gastronomikoak eta horietan jatekoaren bueltan sortzen den giroa gustatu zaizkit. Euskaldunen harrera beroa izan da: abestu, jan eta edan [barrez]. Bestalde, 34 urte eta gero erbestetik bueltatu den lagun bategaz egon dira ni hartu nau-

tenak, eta horrek asko hunkitu nau.

**Bufalo esneagaz egiten duzu gazta, Etxebarri jatetxean legez. Zer du modan egoteko?**  
Ni bizi naizen eremuan bufaloak daude, eta horregatik egiten dut gazta mota hori. Bere usaina eta elastikotasuna gustatzen zaizkit, eta oso ona da gazta freskoa egiteko.

**Zure gaztak arrakasta dauka...**  
Australian oso gutxi egiten dugu gazta eskuz, eta hori ondo baloratzen da. Nire bezero asko Australiako jatetxe onenetakoak dira, eta nire gaztagaz sari nazionalak irabazi izan ditut.

**Gaztazale amorratua al zara? Egunero jaten duzu?**  
Gastronomia gustatzen zait orokorrean, ez gazta bakarrik. Hemen piperrekin jan dudun okela gisatua, adibidez, asko gustatu zait, eta pintxoak ere bai! [Barrez].

**Zergatik utzi zenuen musika?**  
Umeak dauzkat, eta ez dut beti biran ibili gura. Musikak melodia, konposizioa eta erritmoa dauzka, eta gaztagintzak ere bai. Musikatik jaso ditudan irakaspenak gaztagintzaren arloro eroaten saiatu naiz.



## Izarren hautsa

*Izarren hautsa* dut maite ditudan kantetatik maiteenetakoa; bere doinuagatik, baina, batez ere, bere letrarengatik. Oso poetikoa iritzi izan diot beti Xabier Leteren abestiari, eta Mikel Laboaren ahotsean zein Ruper Ordorikarenean, bietan gustatzen zait.

Aspaldian, baina, bihotza urratuta daukat. Urratuta daukat betaurreko moreak jantzi ditudanetik. Orditik hona ezin dut kanta berdin ikusi, edo entzun, hobeto esateko. Hizkuntza ez sexistaz egin dudun ikastaro madarikatuak munduaz dudun ikuskera aldatu dit, findu. Injustizia eta desoreka ipini dizkit begi aurrean inoiz baino agerriago. “Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia...”, “...gizonen lana jakintza dugu, ezagutuz aldatzea...”, “...bere premiak bete nahian beti bizi da gizona...”. Emakumerik ez zen sortu, antza, izarren hautsetik.

Lehen konturatu barik irensten nuen letra. Orain, ostera, estropezu egin, eta kontrako eztairitik sartzen zait. Izarren hautsarekin irudikatu dudun

Lehen konturatu barik irensten nuen letra. Orain, estropezu egin, eta kontrako eztairitik sartzen zait

unibertsoetik kanpo ikusi ditut munduko populazioaren erdia garen emakumezkoak. Eta ez da justua, ezta erreala ere. “Gu ere zerbait bagera eta...”, “ukazioa legetzat hartuz beti aurrera” joan gura dugulako, eta, “gure aukeren jabe eraikiz, ta erortzean berriro jaikiz, ibiltzen joanen” garelako.



# ...eta urte ASKOTARAKO!

DIRU EKARPEN ETA BORONDATEZKO LAN KANPAINA

Plateruena hamar urte beteko ditu udazken honetan. Sasoi seinatu eta aldakorrotan, urteurren osoa daramagu zilarberritzen: Durangaldeko sortzaile eta elkarteekin kultur egitasmoaz gogoetatu dugu, eta herri-eragileen parte hartzea hobetzeko lan-taldeak sortu; Durangoko Udalarekin ere partekatu dugu hausnarketa hori, kulturagunearen kudeaketa bideragarri izan dadin baldintza hobek adosteko. Orain herritar guztiei dei egin gura dizuegu Plateruenean parte hartu dezazuen, kultur egitasmoak gauzatzeko borondatezko lanean jardunez zein kulturagunearen etorkizuna ziurtatzeko diru ekarpena eginez.

www.plateruena.net